



uk

176. zenbakia / 2010eko maiatzaren 31

BARDINEAN EUSKERAZ

Nagusien zaintzaileak
Cuidadores/as de personas mayores

Aisialdirako begiraleak
Monitores/as de tiempo libre

Klase partikularren irakasleak
Profesores/as de clases particulares

Kirol begiraleak
Monitores/as de deporte

Dendariak
Dependientes/as

Tabernariak
Camareros/as

Aurkezleak
Presentadores/as

Umeen zaintzaileak
Cuidadores/as de niños/as

Euskaldunak behar ditugu

Buscamos euskaldunes



*Informazioa, Erandioiko Udaleko Euskara Zerbitzuan
*Información, en el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Erandio



Irailaren 23a plaza, 48950 Erandio (Bizkaia) ☎944 890 100 📠944 890 187



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidetza da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRIEN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Mundialito 2010.
7. LEHEN ETA ORAIN. Armintzako portua.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Aitor eta Jon Andoni Zabala, Ferreteria Algortea.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. *Getxo akordaten naz 2* aurkezpena.
28. ARGAZKIA. Garcia korazatua, argazki zaharra.
30. BERBETAN. Paul Bilbao.
34. FOTOGRAFIA. Umore Azoka 2010, Asier Mentxaka.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *80 egunear* filma.
43. MUSIKA. Getxoko Blues jaialdia. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. *Literaturia* jardunaldia. Erreseinak.
45. KIROLAK. Unai Basurkoren eta Getxoko Udalaren hitzarmena.
46. ELKARRIZKETA. Xabier Alberdi.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Ubide Elkartokia, Ubide (Bizkaia).
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Ehiztariak eta arrantzaleak Faduran, 1966.
54. AITORMENAK. Maite Esparza.

Azala: Asier Mentxaka, Umore Azoka 2010



30 Paul Bilbao

Berbetan

Azken 6 urteotan Behatokitiko zuzendari izan da algortarra, aurrerantzean Kontseiluko Idazkari Nagusi



11 Aitor eta Jon Andoni Zabala



54 Maite Esparza

WWW.RENAULTLEIOA.COM

Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

HARTU TXANDA ONLINE - CITA ONLINE

WWW.RENAULTLEIOA.COM

Leihatila

> Aiala Elorrieta

Fubola

Batzuetan, bizirauteko bada ere (goizetan kaferako egiten dugun deskantsuan, adibidez) futboltasunaz kutsatzen naiz. Urtean zehar oso partidu gutxi ikusten ditut, nagoen momentuan, edo nagoen lekuan "historikoak" direnak. Iaz Athletice Kopako finala gogoratzen dut, Algortan, eta horren aurre/post festa giroa. Duela gutxi, Barçaren ligako garaipena Canaletasen. Hunkigarria zen bertan zegoen jende nahastea. Bartzelonan bizi den gazte marokoarrak, ez du inongo paperik behar futbol talde baten garaipenaz gozatzeko! Izan ere, momentu bizi horiek elkartasun momentuak dira, ospakizun uneak. Batzuk taldearen zale amorratuak direlako, beste batzuk futbola maite dutelako, edota futbola identitate/herri sentimendu gisa bizi dutelako. Gustatzen zait pentsatzea, badagoela zer edozer, ohiko erritmoa eten, eta komunitate sentimendua pizteko indarra duena. Futbolak (eta akaso errugbiak Iparaldean) badu indar hori, baina futbola al da botere magiko hori duen fenomeno bakarra? Zoritxarrez hala ematen du... Urruneko zein hurbilagoko gobernuak erabaki garrantzitsuak hartzen ari dira, krisiari "aurre egiteko" eta gu jokoz kanpo gaude. Izango al dugu indarrik, zelaira salto egiteko?

gu geu**Uda usaina giroan...**

Konpresa iragarkiak hodeiei buruz galde egiten zuen; gure galdera barriz ondokoa duzu: zein da udaren usaina? Hondartza zaleak argi izango du: eguzkitarako krema eta kresalarena. Jatuna denak ostera, parrillan erretzen diren saiheski eta txixi-burruntzien usain gozoa izango du buruan. Askorentzat, herriko jaietako txosnetan parranda ederra bota ostean zapatilek eta prakek izaten duten usaina izango da zalantza barik erantzuna.

Gustuak beste erantzun dituen galdera bategaz topo egin dugu barrero ere. Argi dagoen bakarra, uda heltze dagoela. Lerro hauek idazten ditugun bitartean (eta zoritxarrez, bulegoko lau hormen artean ordenagailu aurrean gaudenean) kalean Aberasturiko izozkiak pasio biziz miatzkatzen dituzte gizon emakumeek; gure kostaldeko hondartzak arropa erantzi eta azala eguzkitan kiskaltzeko irrikan jendez gainezka daude. Tabernetako terrazetan barreak eta garagardo hotzak dira nagusi. Eta UK-ko orrietan herrietako jaiak eta kaleko ekintzak nonahi agertzen hasi dira. Ikusi baino ez duzu: Fotografia atalean Leioako Umore Azoka, auzoetako jaiak Erandioko orrietan, Bluesa Getxon... bai lagun, uda usaina dago giroan!

UK-ko lantaldea**Iritzia**

Emaus Gizarte Fundaziotik, Getxon Udalaren laguntzagaz aurrera eroango duten proiektu baten barri eman digute. Hementxe duzu!

Zer erosi behar duzu gaur zorientitsu izateko

Gaur egungo geure gizarte honetan kontsumismoak gero eta indar handiagoa hartzen du eta munduko egitura ekonomiko horretan oinarritzen da, geuk, herritarrok, kontsumitzen dugun heinean munduko egoera ekonomikoa hobetzen da, hori bai, munduko egoera hobetzeak ez du esan gura lur planetan bizi garen herritar guztiok hobekuntza hori nabaritzea.

Beste gauzatxo bat: erosten duzun guztia behar duzu? Etxean daukazu guztia behar duzu? Behar ez ditugunak erosteak onorio gogorra dakarkigu gutako bakoitzari: diru gehiago behar dugu benetan behar ez ditugunak erosteko!! Orduan, lan gehiago eta denbora libre gutxiago!

Baina ez da hori onorio bakarra, geure kontsumo ohiturek Ipar eta Hegoaldeko herrien arteko desberdintasunak areagotzen dituzte, multinazionalak beraien indarra area-

gotzen dute tokiko ekoizleen eta beraien diru sarreren kontra, betiko ekoizpen prozesuak galtzen joaten dira ohituren eta kulturen zati handi bat galduz eta ingurugiroa suntsituz joaten da.

Bihobakoa gara, orduan!! Ez dut uste. Bakoitzak bere bizitza dauka, arazo nahikotxogaz gainera; ez gara gertatzen denaren errudun eta, noski, ez daukagu dena konpontzeko ardurarik. Baina, nire ustez bakoitzak zertxobait egiteko aukera aurki dezake bere eskutartean; barazkiak lekuko ekoizle bati erosi, euri ura gorde landareak urretzeko, beharrezkoa bakarrik erosi, gure herrietako salgunetan erosi, geure zorientasuna beste gauzen arabera neurtu eta ez, dugunaren edo ez dugunaren arabera, zuk zeuk landatu etxeko barazkiak, hemen egitako jantziak erosi,... eta zuk badakizkizun beste hainbat gauza egin ditzakegu.

Horretan dabil aspaldi Emaus Gizarte Fundazioa hainbat proiektu jorratuz Ipar eta Hegoaldeko herri ezberdinetan. Aurten "Kontsumo Arduratsua eta Tokiko Ekoizpena" proiektua darabilgu eskuartean. Honen barnean Bizkaiko eta Gipuzkoako herri batzuetan baita Malin, Indian, Uruguayan eta Guatemalan ikerkuntza txiki bat egiten gabilta kontsumo arturatsua eta ekoizpen prozesuen inguruan herritarrek dituzten sentipen, bizipen, balore eta nahiak jasotzeko helburuagaz. Ikerkuntza bukatutakoan, jasotako datuakaz eskoletan lantzeko material didaktikoa sortuko dugu; beraz, herritik hartutako sentipen, balore eta nahiak barriz bueltatuko dizkiogu herriari jolas moduan.

Proiektuko ekintzetan parte hartu gura baduzu, anima zaitetz eta jarri gureguz kontaktuan.

Ez ahaztu!! Gaur erosiko duzun hori bene-benetan behar duzu?

Irene Robles Egozkue

(Kontsumo Arduratsuko Arduraduna Emaus Gizarte Fundazioa)

[irudia]



LEOIA, 2010ERKO MARTZAREN 9AN

Bazterketari gola! Mundialitro furbol liga jokatu ohi dute urtero Leioan, Lamiakoko zelaiaren lehen, Sarrienen orain. Hainbat herrialdeko furbol zaleek parte hartzen dute. Etorrikin artean elkar ezagutzeko baliabidea izan dadin gura dute, eta batez ere, euskaldunen artean integratzeko; talde bakoitzean hiru euskaldun dago. Parte-hartzaile batzuek diotenez, hasieran asko kostatzen zaie Euskal Herrian lekukotzea, baina saiatzen dira. Mundialitro dute integratzeko bide bat, maiatzaren 9an hasi ziren ligak eta ekainaren 19an jokaturiko dituzte finalak, Barakaldoko Lasasarre zelaiaren. O / Argazkia: Aisler Mentxaka

Zabaldu euskararen atea



Hauxe da aurreztu dezakezuna zure establezimenduaren errotulak, dianak eta ibilgailu komertzialak euskaraz jartzen badituzu

%50 gehienez 360 euro, euskara hutsez jartzen baduzu. **%30** gehienez 180 euro, euskarazko testuak lehenetsuak bada.

Getxoko enpresa hauetan eska dezakezue zuen errotulua, lehenengo bostetan, gainera, deskontu gehigarria ere gingo dizue:

%10 eko deskontu gehigarria euskaraz jartzen baduzu. **%5** ekoa euskaraz eta gaztelaniaz jartzen baduzu.

HIZIUNTZA ARJOLKULARITZA GETXOKO 94010XCI GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

94 415 22 52
gehia@getxo.net

94 466 00 10/11
euskaraz.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net

TOLDOS Y PERSIANAS MURGUIA

Elkasko herria 25. 94 491 54 32

RÓTULOS PUBLIARTE

Arribea 11. 94 465 35 98

CIANOPLAN

Pantecia herria Kalea 6. Cale illa de Rarros. 94 404 05 72

ULI ARTE PERSIANAS

Arribea 11. 94 465 35 98

LA REPRO

Coka herria 8. 94 466 01 00

KISER

Kale Nagusia 10. Mayor 11. 94 464 13 37

AMETS

Algarbako herria 11. 94 466 10 11

RÓTULOS ARRILUCE

Arribea 11. 94 465 35 98

DESKONTU GEHIGARRIA



Iraganez doa denbora* beti / ARMINTZAKO PORTUA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > makina bihozbakoa



2006ko ekaina, Larrabasterra

Testua: **Josu Arroyo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Aita izena kanta beharrak... (X. Amuriza)

Neurri txikian jostailu eta neurri handian munstroa; jende askoren begietara makina bihozbakoa. Parean zauzkat, geldi, isilik, burdin puska demonioa! Bai, gizakiak sortu zintuen; hau munduaren eroa! Irudi honek islatzen al du gure herriaren geroa?

Nekazaria ikus nezake, etsipenez, zuri adi; bere soloak gogoan dauzka, eta ezin eutsi malkoari. Diru dezente jaso omen du, baina zer inporta hari? Beharlekua galdu duenak ezin ekin beharri... Zer itxaropen geratzen zaio lurretik bizi denari?

Eraikuntzaren arma zaitugu, aseezina lanean; gure auzoko landa guztiak jan zenituen kolpean. Errudun bila aritu ohi naiz, eta nekatu azkenean... Lotsaren lotsaz gordeko dira guztiak zure atzean, Uribe Kostan azken ortuak zanpatzen dituzunean.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Udako ikastaroak Uribe Kostako AEK 

Mihi puntan duzu

- IKASTARO TRINKOAK
- 2 ASTEKO BARNETEGIAK
- BARNETEGI IBILTARIAK
- MAILA OFIZIALAK ETA EGA
- FAMILIENTZAKO BARNETEGIAK
- www.aek.org | 902 36 22 94

euskara > ekainaren 6an denok Arrasatera, Mintza egunera!



Algortako Portu Zaharrean ospatu zuten Mintza eguna orain urte batzuk

Uribe Kostako berbalagunok eta euskaldunok badugu hitzordu garrantzitsua datorren ekainaren 6an, Arrasaten. Mintza eguna ospatuko dute eta Euskal Herri osoko mintzalagunak elkartuko dira bertan. Egun osoko jaialdia izango da. Goizeko 11:00etan ekingo diote festari Biteri plazan, ongi-etorriagaz eta hamaiketakoagaz. Eguerdian ibilaldi gidatua egingo dute eta 13:30ean hasiko da kalejira, giroan murgiltzen laguntzeko. Bazkaltzeko herriko plaza nagusian elkartuko dira 14:30ean; txartelak han bertan erosi ahalko dira. Bazkalondoa egingo dute sari banaketa, eta loak inor harrapatu aurretik ekingo diote dantzari, 16:00etan; Kataia taldeak eskainiko du erromeria. Plan hoberik bai domekarako? Joan gura duena Getxoko Egizugaz jar daiteke harremanetan, autobusa antolatu du, eta agian, lekuren bat libre daukate oraindino; 619 935 541 telefono zenbakira hots egin dezakezu. Anima zaitez, mintza euskaraz! ○

getxo > Bidebitarte txokoaren urrezko ezteiak, hamaika ekimen



Bidebitarteko lagunak, aspaldiko argazkian

Berrogeitamar urte bete du Algortako Bidebitarte txokoak, auzoko zaharrena, eta herritar guztiakaz ospatuko dute. Izan ere, oso ezaguna da txokoa. Hamaika ekitaldi egin dute, Udalak edo herriko talderen batek behar duenean beti daude laguntzeko prest: ikastola, ALBE, UK, Getxophoto, pilota eskola... Kideak ere 50 dira, 80tik gora igaro da handik, eta hortaz, urteurrena, behar bezala ospatu beharra dago. Ekainaren 8an txokoaren sortzaileak omendu eta argazki erakusketa jarriko dute Geltokia plazan; han egingo dituzte ekimenak. Ekainaren 12an, bertsolariak arituko dira 13:00etan eta poteoan eta Los Txikis taldeak abestuko du. Domekan txahal errea banatuko dute, dantza erakustaldia izango da eta Biotz Alai abesbatzak kantatuko du. Zorionak eta urte askotarako! ○

saiazgetaria  HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...haria *...lehengo garaiak...* *...itsasoa*

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

bertsoak > izena eman daiteke Bertsolandegian parte hartzeko



Matrikula egiteko eta informazio gehiago: www.ueu.org

Ekainaren 30etik uztailaren 2ra bitartean egingo dute Bertsolandegia Eibarren, Udako Euskal Unibertsitatearen egoitzan. Izan ere, UEUK eta Bertsozale Elkartekok elkarlanean antolatu dute ikastaroa, UEUren udako eskaintzaren baitan; *Bertsormena. Landu sormenaren alderdi komunikatiboa* izenburua jarri diote eta helburua izango du bertsoaren alderdi komunikatiboaren kontzientzia hartzea eta perfektionatzea. Bertsoaren sormenari buruzko ikastaldi teoriko-praktikoa izango da, baina bertsoa ez ei da bakarrik testua: *“Testua, kanta era, gorputz espresioa, taktikak eta strategiak dira gutxienez bertsoa”*. Andoni Egañak, Xabi Payak, Jon Maiak eta Ander Lipusek eskainiko dituzte berbaldiak zein tailerrak, besteak beste. Matrikula egin daiteke ekainaren 20ra arte, UEUren webgunearen bitartez: www.ueu.org. Bertan topa daiteke ikastaroari, prezioei eta diru-laguntzei buruzko informazioa. ○

erandio > toponimia lanaren laguntzaileei oroigarriak etxez etxe



Mapa barria ikusteko: www1.geograma.com/erandio/eusk.callejero/irinetv.aspx

Herriko toponimia bildu, sailkatu eta aztertu dituzte Erandion azken urteotan, ondoren toki-izen barriak finkatzeko. Barriak baino zaharrak esan beharko, ordea, desagertu edo ia desagertutako toki-izenak berreskuratu dituzte eta. Ezagutzera emateko, gainera, mapa eta kale-izendegi barria argitaratu eta aurkeztu zuten urtarril akabuan. Ekitaldi hartan oroigarriak banatu zituzten adineko hainbat herritarren artean; izan ere, beren oroimenari esker berreskuratu dituzte toki-izenak. Baina laguntzaile guztiek ez zuten ekitaldira joaterik izan, beraz, orain aste batzuk eroan diete oroigarria Udalekoek eta ikerketa lana egin duten lagunek. Baserriz baserri ibili ziren eta egun hartako irudiak partekatu gura izan dituzte UK-ko irakurleakaz. ○



“Burdindegia baino Sorospen Etxea garelako dirudi”

Aitor eta Jon Andoni Zabala Sistiaga > Ferreteria Algortea

Eztabaidan baina umorez; honela hartu gaituzte Aitor eta Jon Andoni Zabala anaiak, Algortako Torrene kalean duten burdindegiko mitikoan. Txileko doinua da sorterritik gelditzen zaien apurra, algortar petoak baitira: *“Gure aitite, Jose Martin Zabala, Getxoko alkate izan zen”*. Vitoriano aitak zabaldu zuen burdindegia 1968an: *“Gurasoak Txilera joan ziren gerra aurretik eta gu bertan jaio ginen; aita burdindegiko saltzailea izan zen bertan eta hona bueltatu zenean, 68an, burdindegia zabaldu zuen”*. Denetarik saltzeaz gain, edozein galdera erantzuteko prest agertzen dira beti: *“Burdindegia baino Sorospen Etxea garelako dirudi; ezagutzen gaituztenez, denetarik eskatu edo kontatzen digute. Familia giroa dago; belaunaldi ezberdinak ezagutzen ditugu”*. Gustura sentitzen dira beharrez: *“Gure bigarren azala da”*. Denda barruan ordu asko eman dituzte eta horrek gizartearen aldaketak ikusteko aukera eman die: *“Geroz eta pazientzia gutxiago daukate bezeroek”*. Hala ere, jendeagaz etenbako tratuan egotea plazera da Zabala anaientzat: *“Duda barik”*. Erosteke eta beharra antolatzeke era ere nabarmen aldatu da: *“Burdindegien sistema tradizionala desegin da; edonon edozer aurki daiteke orain”*. Galdera batez hurbiltzen bazara, ziur egon irribarrez hartuko zaituztela: *“Mostradore atzeko orduak lortu dute hori!”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Itsasotik gurutzontzian zein belaz

Itsasoa turistak erakartzeko balio dezakeelakoan, aisialdi eskaintza zabaldu du Turismo Bulegoak; gurutzontzietan datozenentzat pakete bereziak prestatu dituzte

Getxora hurreratzen diren turista asko itsasotik edo itsasoak eskaintzen dituen aukerak erakarrita hurbiltzen dira; hori ikusita, *Euskal Kostaldea Belaz* programa indartu eta gurutzontzietan datozen lagunentzako pakete turistiko bereziak prestatu ditu Turismo eta Sustapen Ekonomikorako Sailak. MSC konpainiak, Getxon hasi eta amaituko den itsas bidaia antolatu du 2011rako.



Gurutzontzia Getxoko Kirol Portuan

Itsasoa turistak erakartzeko tresna zein turistak ekartzeko bidea izan daiteke. Horretaz jabetuta, hainbat neurri jarri ditu martxan Turismo eta Sustapen Ekonomikorako Sailak.

Alde batetik, gurutzontzietan datozen bidaiariak eta eurek eragiten duten inpaktu ekonomikoa bertan geratzeko, informazio, komertzializazio eta sustapenerako ekimenak bultzatuko ditu Udalak. Kirol Portuko terminalatik urteko den eta Algortara eta Areetara helduko den transbordadore-autobus zerbitzua jarriko dute, udalerriko gune komertzialetara ahalik eta turista gehien eroateko. Autobus bi ariko dira bidaia egiten etengabe goizeko 10:00etatik ordu 14:00etara eta gidari turistikoak dinamizatuko ditu. Horrez gain, Getxora helduz diren edo Getxotik urtetan diren bidaiarientzat pakete turistiko bereziak prestatu ditu. MSC konpainiak Getxon hasi eta amaituko den itsas-bidaia antolatu du 2011rako; Ingalaterra, Holanda eta

Frantzia zeharkatuko dute bidaiariak eta urtean bederatzid bider urteko da.

Bestalde, *Euskal Kostaldea Belaz* programaren barruan *Nabigatzailearen Oste-gunak* ekimena eskaintzen jarraituko

«Gurutzontzietan datozenentzat transbordadore-autobusak jarri dituzte; nabigatzea gustuko duenak, ibilbide ezberdinak egiteko aukera dauka»

dute aurten, joan den urtean harrera ona izan baitzuen. Ordu biko urteerak dira; ez da alde aurretik erreserbarik egin behar eta 16:45ean Kapitaintza Eraikinera hurbildu behar dira itsasoratu gura dutenak. Bidaiari bakoitzak 25 euro

ordaindu behar ditu. Asteko beste egunetan ere, egun erdiko zein egun osoko ibilbideak egiteko aukera dago.

Ibilbide luzeagoak egin gura duen nabigatzaileak, euskal kostaldearen zati bat zeharkatzen duen sei egunetako Getxo-Donostia-Getxo bidaia egin dezake. Ekainaren 15etik irailaren 14a arte, astelehenero urten daiteke. 695 euro ordaindu behar dira; prezioaren barruan bidaiaz gain, gosariak eta zenbait portutan bisita turistikoak egiteko aukera sartzen dira. Belaontzi osoak (patroia barne) alokatzeko eta bela-ikastaroak egiteko aukera ere badago.

Guztira, bi kabina bikoitzeko 12 belaontzi dituzte *Euskal Kostaldea Belaz* programan erabiltzeko. Informazioa eskatzeko edo erreserbak egiteko Turismo Bulegora jo behar da. ○

Gidabaimena euskaraz

ateratzeko aukera herriko bederatzid autoeskolatan



Getxoko bederatzid autoeskolak egin du bat ekimenagaz

“Atzeko jesarlekua estreinatu aurretik... PRAKTIKA EZAZU” lelopean, gidabaimena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi du Getxoko Euskara Zerbitzuak. Debagoieneko Mankomunitateak eman zuen gidabaimena euskaraz egiteko lehen aukera 2009an; horren ostean beste zenbait herri batu dira ekimenara, horien artean, Erandio eta Uribe Kostako Mankomunitatea. Unai Zuluagak AEOL argitaletxearen laguntzagaz euskaratu zuen materiala joan den urtean. Teoria eskuliburuak, ikasleek bere kabuz ikas dezaten erabiltzen den programa informatikoa, Aeol Multimedia irakasle birtuala eta zirkulazio seinaleak batzen dituzten 8 horimudi daude euskaraz. Bizkaian, azterketa teorikoa zein praktikoa egin daitezke euskaraz, Trafiko Zuzendaritzan hiru

aztertzaile euskaldun baitago.

Getxon, ekintza bi eroango dira aurrera. Alde batetik, sentiberatze-kanpaina egingo dute; honen barruan, 17-23 urte arteko gazteak informatzeko mailin ga egiteaz gain, azterketa teorikoa euskaraz egitegatik klase praktikoa bat oparituiko dute. Bizkaian parte hartu duten lagun guztien artean, Europan zehar ibiltzeko 3 lagunentzako interrail bidaia zozketatuko da. Bestalde, parte hartzen duten autoeskolak, euskarazko produktuak eskuratzeko 600 euro arteko dirulaguntza emango diete; gainera, eskuliburuak eta autoeskoletako hizkuntza paisaia euskalduntzeko materiala oparitu die Euskara Zerbitzuak. Getxon dauden 14 autoeskoletatik, 9k egin dute bat ekimenagaz, %65ek. ○

AIBOAKO IGOGAILUA ZABALDU DUTE

Txakursolo kalea eta Makaletako Etorbidea Metro geltokia eta Arkotxa-Ormetxe Udaletxeko aldeagaz lotzen dituen Aiboako maldaz gorako igogailua zabaldu zuten maiatzean. Bidaia bakoitzean 25 lagun garraiatzeko gaitasuna du eta goizeko 07:00etatik gaueko 11:00ak arte dago erabilgarri. Jarduera hau metro geltokiko goiko aldean egokitu duten ibilbide irisgarriagaz osatu dute. Honez gain, auzotarrek egokitutako bidezidorra konpondu eta oinezkoentzako ibilbide txukuna egin dute goi aldetik eta Txakursolo kale arte-raino. Egitasmo osoaren aurrekontua 1.515.000 eurokoa izan da, Tokiko Inbertsiorako Estatuko Funtzaren kontura.

ERROTULUAK EUSKARAZ MERKEAGO

Zabaldu euskararen atea kanpaina martxan jarri du Udalak, euren jardueraren testuak euskaraz ipini gura dituen establezimendu eta langile autonomoentzat. Herrian errotuluak egiten dituzten bederatzid enpresetatik seik, %10eko deskontua egingo dute errotulua euskaraz egitegatik eta %5ekoa elebiduna bada. Udalak 2002az geroztik dirulaguntzak ematen dizkie udalerriko establezimenduei eta langile autonomoei lokaletako testuak euskaratzeko. Honez gain, itzulpen zerbitzua, euskaraz atzitzen ikasteko ikastaroak eta hizkuntza aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute.

Informazio gehiago: 94 466 00 10

NOTA ONA LORTU DU ZAHARREN EGOITZAK

Bertan bizi diren 64 pertsonari eta 82 sendiri egindako inkestaren arabera, Zaharren Udal egoitzaren erabilzaileak pozik daude zerbitzuagaz. Galdekatutako egoiliarren poztasun maila 4,3koa da eta sendiena 4,6koa 5etik. Inkestaren helburua eskaintza hobetzea da, kalitatezko zerbitzua emate aldera. Hoberen baloratutako elementuak egoiliarren eskubideak, tratu atsegina eta intimitatearekiko errespetua izan dira.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Bagastikoetxe Industrialea
Etxalde 2 - Pabioi 11
48330 Gortiz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Auzokideok > Getxoko auzo elkarten koordinakundea

“Hirigintza proiektu guztietan hasieratik parte hartu ahal izatea eskatzen dugu”



P. Amezaga (San Nikolas), L. Torrontegi (Antena Ez), G. Arteagabeitia (Antena Ez) eta J. Iturregi (Andra Mari)

Herritarren parte hartzearen aldeko borroka. Hori da 2009. urte amaieran sortutako Auzokideok Getxoko auzo elkarten koordinakundeko kideak elkartu dituenen. Dagoeneko zazpi auzo elkarte batu dira; guztiak helburu berdinagaz: herritarren hitza entzunarazi eta hori kontuan hartzeko eskatzea. Maiatzean prentsaurrekoa egin zuten San Nikolas eta Antena Ez elkarterako lagunek elkarlanean; Telefonikaren antenak eragin ditzakeen osasun arriskuez ohartarazi zuten. Horretaz, zein bidean aurkitutako oztopoez berba egin digute, lasai baina haserre.

—Zer da maiatzeko prentsaurrekoan adierazi zenutena?

—Antena Ez eta San Nikolas auzo elkartereko kideak deitu genuen prentsaurrekoa. Urtarrileko Udalbatzan hirigintza zinegotziak adierazi zuen, hutsik dagoen Telefonikaren eraikinak ezin duela Musika Eskola hartu kutsadura elektromagnetikoa baitago bertan. Transformadore bi eta teilatu gainean dagoen antena daude eraikinean. Ondo ikusten dugu Udalak gai horrekiko erakutsitako jarrera; baina,

Musika Eskola Telefonikaren eraikinean jartzea arriskutsua bada, arriskutsua izango da Getxo Antzoki barrian jartzea ere, 30 metrora baitago.

—Zer proposatzen duzue?

—Udalaren partetik nolabaiteko konpromisoa dagoela uste dugu, udalbatzan gai hori landu baitzen. Umeak eta osasuna nahasten dituen gai bategaz ezin da jolastu. Egokiena telefonikaren eraikina eraitea eta kutsadura gunea kentzea dela uste dugu. Hori egiten ez bada, Musika

Eskola beste leku batera eroan beharko da, kutsadura gunetik urrun.

—Erantzunik jaso duzue?

—Udalak esandakoari guk emandako erantzuna da hau. Kasu berezia da, eskola kutsadura gunera ekarriko baitute.

—Zelan doa Antzokiaren lanen inguruko auzia?

—Guk pentsa baino gehiago luzatzen ari da; uste dugu, Udalak ez duela onartu gura erratu egin dela.

—Hainbat auzo elkarte batu zarete Auzokideok koordinakundean, zergatik?

—Konturatu gara auzo gehienetan arazo

«Eskola ezin bada Telefonikaren eraikinean ipini, 30 metrora ere ez»

berdintsuak ditugula. Zazpi elkarte gaude eta gugaz elkartzeko deiak jasotzen jarraitzen dugu. Udalak egitasmo bat martxan jartzen duen bakoitzean, arazotxo bat sortzen da: ez ditu auzokideak kontuan hartzen, ez da gugaz komunikatzen. Gure iradokizunak erosten ditugunean, hartu egiten gaituzte, baina guk proposatutakoari ez diote kasurik egiten. Ez digute ezer aldatzen uzten. Aholku Batzordean iritzia emateko aukera daukagu, baina hori ez da inon islatzen, ez du ezertarako balio. Gainera, datuak ezkuratzen dizkigute; eurek gura beste denbora daukate euren proiektuak pentsatzeko eta guri hilabetean iritzia emateko aukera baino ez digute ematen.

—Zer eskatzen duzue?

—Hirigintza proiektu guztietan hasieratik parte hartu ahal izatea eskatzen dugu. Ez gaude ados funtzionamenduagaz; agian legalki arrazoia izango dute, baina parte-hartzearen ikuspuntutik ez da bidezkoa. “Dena herriarentzat, baina herria barik”; hori da egiten dutena. ○

Getxotar Dantza Eguna

Hiru egunez, **11, 12 eta 13a** Biotz Alai plaza hartuko dute **herriko dantza eskolek**



Dantza klasikoa ikusi ahal izango da, beste askoren artean

Ez dira gutxi Getxon dauden dantza eskola eta taldeak. Estilo batean zein bestean, tutua soinean zein zapatilak eta kapela jantzita, ehundaka dira dantzaren artea ikasten saiatzen diren herriko neska-mutilak. Horregatik, orain 17 urte Getxotar Dantza Eguna ospatzen hasi ziren Getxoko dantza eskolak eta taldeak. Aurten, hiru egunez ikusi ahal izango dira herriko dantzariak 2009-2010 ikasturtean zehar prestatutako koreografiak.

Ekainaren 11n, barikua, Ana Lara Algortako dantza estudioko ikasleen txanda izango da, arrastiko 19:30ean. Hurrengo egunean, goizez hasiko da

emanaldia. 12:00etan Erromoko Carmen Vera Dantza Eskolako ikasleak ikusi ahal izango dira; ondoren, arrastiko 15:00etan, Danco Estudioko lagunek dantzatuko dute. Zapatuko emanaldiari amaiera emateko, Dantzarte eskolako dantzariak euren koreografiak erakutsiko dituzte 19:00etatik aurrera. Domekan, hilaren 13an, Las Arenas Flamenko eskolako lagunek takoi-hotsa aterako dute eguerditik aurrera.

Emanaldi guztiak Algortako Biotz Alai plazan izango dira; gonbidapenak Kultur Etxean har daitezke ekainaren 7tik aurrera. ○

JAIETAKO LEHIAKETAK ABIAN ROMON

Martxan daude Romo eta Pinuetako Jai Batzordeak jaiari begira urtero martxan jartzen dituen lehiaketak. Alde batetik, marrazki lehiaketa egingo dute; horretan hiru modalitate ezberdin egongo dira: kamiseta, zapia eta liburutxoak. Atal bakoitzeko irabazleak 100 euroko saria jasoko du, kamiseta eta zapi bategaz batera. Bestalde, musika taldeen lehiaketa egingo dute beste behin ere. Edozein taldek parte har dezake; egokitutako kantuak onartuko dira, baina errepertorioaren %50 izan daitezke bakarrik. Gainontzekoak originalak izan behar dira. Lehiaketa horretako irabazleek jaietan lehen mailako musika talde bat baino lehenago jotzeko aukera izango dute, eta horrez gain, txosnan kontsumitzeko 100 euroko bonoa emango zaie. Lehiaketa bietarako lanak ekainaren 15a baino lehen entregatu behar dira Santa Eugenia zein Pinuetako Kultur Etxean.

IZENA EMAN DAITEKE IX. KOMIKI AZOKAN

Getxoko IX. Komiki eta Manga Azoka 2010eko azaroaren 26tik 28ra bitartean egingo dute Areetako Geltokia plazan. Esparru komertziala izango da beste behin ere espazio nagusienetako bat hiru egun horietan. Stand bakoitzaren alokairua 300 eurokoa da, eta bertan egon gura duenak uztailearen 31 baino lehen egin beharko du eskaria Kultur Etxean. Irailaren 30ean jakinaraziko dira onartutako standak. Aurten ere, 1,50 euro ordaindu beharko da azokara sartu ahal izateko.

GORPUZTI EGUNEKO JAI EKAINAREN 6AN

Ohiturari jarraituz, Gorpuzti Eguneko Jai ospatuko dute hilaren 6an Portu Zaharrea. Etxetxu plazan hasiko da meza eguerdian. Ordu batean Biotz Alai abesbatzaren emanaldia egongo da; horregaz batera, sardina janagaz gozatzeko aukera egongo da plazan bertan. Arrastiko 19:00etan Los Barbis taldearen emanaldia egongo da.

lagusana
libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
TÉ. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Blanca Lazkano eta Koldo Tellitu > Betiko ikastola

“Ikastola bizirauteko aroa amaitu da eta heziketaren etorkizuneko erronkei erantzun gura diegu orain”

Garai bati amaiera eman zioten Betiko Ikastolakoek maiatzaren 22an, ikastolako jaietan. Hamar urtetako aroa bukatu eta erronka barriari helduko diete orain. Ikastolako zuzendari Blanca Lazkanok eta presidente Koldo Tellituk eman digute horien barri.

—Ikastolako jaia berezia izan da aurten, zergatik?

—Negu gorriko garaia atzean utzi eta ospatu dugulako. Azpiegitura moldatzen ibili gara azken hamar urteotan, eta azkenean, bukatu dugu. Lehenengo Ibilaldia egin ondoren ikasleen kopurua hazten hasi zen eta horri erantzuteko azpiegitura egokitu behar genuen. Pilotalekua egin dugu, eraikinetako batean beste solairu bat eraiki dugu, leihoak aldatu ditugu, laborategia jarri dugu... Aro horren amaiera irudikatu dugu ikastolako jaietan. Gainera, hemendik sei bat urtera ikasturte guztiak izango dituzte bina lerro, eta dagoeneko, 500 ikasle inguru daukagu.

—Aro barriari sartuko zarete orduan, zergatik aurrerantzean?

—Heziketaren etorkizuneko erronkei erantzun gura diegu eta gure egitasmoa sendotu. Kurrikulumak eskatzen du teknologia barriak sartzea, informatika ez da



Estalitako jolastokia da aldaketan abididerik agerikoena

izango irakasgaia, ikasteko erabilgarri baidak. Hezkuntza eleanitza izango da, eta ondorioz, irakasgai batzuk ikasi ahaliko dira DBHn, eta frantsesa eskaini gura dugu. Azken hamarkadako helburua ikastolaren biziraupena izan bada, zerbitzu guztiak eskaintzera goaz orain. Ikasle trebeak hezi gura ditugu, hau da, klasean ikasitakoa bizitzan, egunerokoan, aplikatzeko gai izatea gura dugu. Gainera, hizkuntzaren egitasmoa ikasgelatik atera

eta euskaraz bizitzeko aukera eskaini gura diegu ikasleei. Lau urterako plan estrategikoa prest daukagu, aurrerantzean aplikatzea dagokigu.

—Izan ere, euskaldun izaten irakastea da Ikastolaren oinarria, ezta?

—Xede garrantzitsua da, ez dugu ahazten eta euskal kurrikulumagaz lotuta dago. Gauza bat da euskara jakitea, eta beste bat, erabiltzea. Euskaldun sentiarazi behar ditugu ikasleak. ○

Txitxiburruntzia prest!

Txarrikia dastatu eta dantza egiteko, erdu **San Bartolome** auzora, **ekainaren 12an**



Edozein zalantza edo proposamenetarako: <http://berbalamineuskeraz.blogspot.com>

Antzina, negua amaitutakoan, baserrietako eta auzoetako bizilagunak elkartu eta egun pasa egiten zuten, txarrikia sutan errez eta dantza eginez... Euskal Herriko beste leku batzuetan sarteneko, sasikoipetxu, basatoste, sasimartxo... esaten diote, eta Leioan, txitxiburruntzi. Berbalamiñe Euskara Elkartek ohitura berreskuratu zuen orain urte batzuk. Txitxiburruntzi eguna da, eta aurten, ekainaren 12an egingo dute San Bartolome auzoan.

Goizean egingo dituzte umeentzako jarduerak eta euskal dantza ikuskizuna. Txitxiburruntzia 13:30etik aurrera dastatu ahaliko da, eta bazkaldu aurretik, larrain dantza dantzatuko dute. Herri

bazkariaren ondotik egingo dituzte koardrilen arteko herri kirolak, eta 19:00etan, gorputza ondo astintzeko, erromeria izango da.

Berbalamiñetik jakinarazi dute bazkarietarako txartelak eskura daitezkeela ekainaren 9ra arte. Bestalde, larrain dantza ikastaroa egingo dute ekainaren 7tik 11ra, San Bartolomeko plazan eta 21:00etan, dantza ikasi gura duenak agertu besterik ez dauka.

Edozein zalantza edo proposamen egin gura baduzu bitartekoak jarri dituzte: 695 75 31 10 telefono zenbakia, berbalamineuskeraz.blogspot.com bloga edota berbalamine@yahoo.es helbide elektronikoa. ○

IKASTEKO ARETOA ZABALIK KULTUR LEIOAN

Kultur Leioako liburutegia ikasteko areto gisa erabil daiteke dagoeneko. Zehazki ordutegi berezia mantenduko dute maiatzan, ekainean eta uztailan; hau da, unibertsitateko azterketen sasioan. Zapatu eta domekatan ere zabalduko dute ikasteko aretoa, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

TXORIERRI AUZOKO JAIK 11TIK 13RA

Udagaz batera loratu ohi dira herrietako eta auzoetako jai gehienak. Leioako Donibane jaiak dira herriko jendetsuenak, baina auzoek ekin diete beren ospakizunei. Lamiakok oraintsu bukatu ditu bereak eta hurrengo txanda dagokio Txorierrri auzoari. Ekainaren 11tik 13ra bitartean izango dira. Hartu indarra, egitarauari azken erreposoa ematen dabilta eta.

MINGOTE. 90 URTE, EKAINEAN ERE IKUSGAI

Oraindino badago aukera Mingoteren omenezko erakusketa ikusteko Kultur Leioan, ekainaren 27ra arte. Antonio Mingote Barrachinak (Sitges, Bartzelona, 1919) 90 urte bete ditu, eta bere lagunek, omenaldia egin diote. Ilustratzaile, grafista, idazle, kartelgile, gidoigile eta akademiko izanik, umorearen dekanotzat daukate, eta oraindino, jardunean dago. Erakusketak, 50 lagun lanak batzeaz gainera, Mingotek berak sortutako koadroak, liburuak, bideo-proiektzioa eta 44 bineta batzen ditu.

ZERBITZU BARRIAK ZAINDUZ PROGRAMAN

Nagusientzako bereziki zuzendutako doako hainbat zerbitzu jarri ditu martxan Udalaren Gizarte Zerbitzuen sailak, Bizitzaren Fundazioaren bitartez. Zainduz programaren barruan kokatuta daude eta profesionalak emango dituzte.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirutab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



Ekainaren 5ean, Inguogiroaren Nazioarteko egunean, KUME-k dimentsio berdea inauguratuko du:

Maskotentzako denda ekologikoa.

Hurbil zaitetz: KUME ERANDIO, Itsasadarreko Errepidean Erandio eta Astrabudua artean.

KUME BERDEA. DENDA EKOLOGIKOA!!

Ribera de Arzo 4, ERANDIO

[erandio]

Julian Iantzi > telebista aurkezlea

“Poliki hasi behar dute euskaraz bustitzen; akatsak atera eta elkarrekin ikasiko dute, ohitura kontua da”

Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko ekimena burutu dute ikastetxeek eta Udalak. Besteren artean, hitzaldiak eskaini ditu ikastetxeetan Julian Iantzi telebista aurkezleak.

—Ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko hitzaldiak eskaini dituzu, zer esan diezu?

—Gauza asko. Egoera ezagutzen dut: euskara ezagutu bai, baina ez dute erabiltzen; elkarren artean gaztelera aritzen dira, ohitura horri heldu diotelako. Euskararekin izan dudana bizipena kontatu diet. Puntu batzuetan bitxia da, AEBtan jaio, euskaldundu eta 7 urterekin etorri nintzen; baina ezin euskaraz egin, Frankoren garaia zen. Ez nekien gaztelera, baina ikasi behar izan nuen. Gaztelera egiten nuen toki guztietan, eta euskara galtzen hasi nintzen: ikasleen parean jartzen naiz, gaztelera egiten nuelako errazago euskaraz baino. Baina ohartu eta ohitura aldatu nuen. Nik lortu badut, eurek ere lor dezakete. Euskara ikasteko hainbat arrazoi dago, gure hizkuntzaren atzean herriari nortasuna ematen dioten kultura, ohitura eta ezaugarri batzuk daude. Euskaldunak gara eta gurea mantendu behar dugu,



“Euskaltegira joan izan ez banintz, uko egin behar izango niokeen telebistari”

bestela kanpotik etorriko dira etsaiak berea ezartzera, eta hizkuntzak desagertzeko arriskua dago. Euskalkiak ere galtzeko arriskua badago eta horren garrantziaz aritu naiz.

—Eta nola hartu zaituzte?

—Entzun eta parte hartu dute, galderak egin dizkirate. Batez ere telebistari buruzkoak, baina euskaraz. Horregatik deitu naute, pertsona ezagunak garelako. Eta telebistan nago euskarari esker, telebistarako aukera sortu zitzaidan euskaraz

egiteko; baina euskaltegira joan izan ez banintz, uko egin behar izango niokeen. —**Beste hainbat herritan ere ibili zara, zer ondorio atera duzu?**

—Bada, lan handia dagoela gazteekin, gaztelera egiten dutelako. Errazago ateratzen zaie, baina ohitura kontua da. Nik esaten diet: “*Hasi poliki euskaraz bustitzen, egunerokotasunean, zuen artean, interneten... Akatsak aterako dira eta elkarrekin ikasiko duzue*”. Dakitena atera eta hobetu behar dute. ○

Jai garaia inauguratu da Goikoako Korpua ekainaren 3tik 6ra, eta Fano eta Martiartu, bigarren asteburuan



Martiartuko dorrea

Hondartzako denboraldiagaz batera hasi dira auzoetako jaiak. Ekaina lepo dator, izango da guztietarako tarterik?

Lehen asteburuan ospatuko dute Korpua Goikoan, ekainaren 3tik 6ra. Korpus egunean, 3an, herri afaria egingo dute, eta barikuan, bilbainadak, saiheski jana, erromeria eta dantzaldia, Auskalo non da eta Akelarregaz. Zapatuan umeentzako ekimenak eta sagardotegi herrikoia izango dira, eta dantzaldia Jo Ta Hankagaz. Las Fellini taldearen ikuskizuna ere izango da, 01:00etan.

Domekan bukatuko dira festak, baina Fanok eta Martiartuk hartuko diete lekuakoa, ekainaren 11tik 13ra. Fanon indaba-

da herrikoia egingo dute barikuan, ekainaren 11n, txupinazioaren ostean. Tortilla txapelketa eta dantzaldia ere egongo dira. Larunbatean umeen eguna izango da eta jolasak prestatu dituzte. Gainera, paella jana, tiragoma txapelketa, txitxiburduntzia eta dantzaldia egingo dituzte. Domekan amaituko dira jaiak, euskal dantza erakustaldiagaz.

Martiartun, barriz, gaupasa egingo dute barikuan Haitzama taldeagaz. Zapatuan Euskadiko Sokatira Txapelketa izango da (640 kg.) eta Trikiziok girotuko du gaua. Domekan luntxa, bertsolariak, idi-probak eta pailazoak arituko dira. Ez dago zeregin makala! ○

PLASTIKOZKO POLTSAK MURRIZTEKO KANPAINA

Herriarrak plastikozko poltsen “kontsumoa murriztearen garrantziaz” ohar daitezten, kanpaina abiatu dute saltokiek eta Udalak. Beste ekimenen artean, erosketarako organo emango diete herriko saltokietan erosten dutenei. Dagoeneko informazio-diptikoak banatu dituzte Astrabuduan, Goikoan eta Altzagan. Gainera, kontsumitzaileek proposamenak eta ekarpenak egin ditzaten, guneak jarri dituzte hiru auzoetan. Postuetan banatuko dituzte libretak, ondoren erosterako organo eskuratutako ahal izateko.

KONTSUMO HITZALDIA ASTRABUDUAN

“Testamentuak, herentziak eta dohaintzak. Notarioaren zeregina” hitzaldia eskainiko du Ines Minguez Martin abokatua Astrabuduan, ekainaren 2an, eguztarena. Josu Murueta Kultur Etxean arituko da 18:00etatik aurrera. Kontsumo Bulegoak eta Udaleko Osasun Publikoaren Kontsumo sailak antolatuta dute, Kontsumo Hitzaldiak 2010 egitasmoaren baitan. Dagoeneko beste auzo bitan eskaini dute hitzaldia, Erandio Goikoan eta Altzagan. Astrabuduan izango da hirugarrena eta azkena.

ELKAR TXIRRINDULARI TALDEA SORTU DUTE

Leioa, Erandio eta Berangoko Udalek Elkar Txirrindulari Elkartearen sorrera sustatu dute, Leioa Txirrintxu Elkarteagaz batera. Txirrindulari gazteen taldea izango da Elkar eta Leioan edukiko du egoitza, baina eskualdeko txirrindulari eskolagaz bat egingo du. Hamaika txirrindularik osatuko dute eta Alberto Leanizbarrutia izango dute kirol zuzendari. Taldeko arduradunek esan dutenez, euren asmoa da Berango Txirrindulari Eskolan dabilzan “gatzetxoei txirrindularitza jarraitzeko aukera ematea”; hau da, behin hastapeneko epea amaitu ondoren, kadete eta junior kategorietan lehiatzen hasteko aukera ematea.

	<p>Luberrri Basolanak, SL Axpe ibalartza 28A beheko solairua B12 lokala Erandio (Bizkaia)</p>	<p>- Soropila ezartzea Lurzoru prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, turtsezko organitze lanak eta erate lanak.</p>
	<p>Mugikorra: 629 41 18 38 Tf. 94 467 17 13 Faxa: 94 467 42 41 luberrri@euskalnet.net www.luberrri.biz</p>	<p>- Soropila zaintzea eta mantentzea Moztea, ureztatzea, organitzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrilkatzea, soropila gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.</p>
		<p>- Insusketak Hazteko, mantentzeako, berritzeako, zuhaisku apaingarriak inusketak, erabateko insusketak.</p>
		<p>- Barrukaldeak lorategi bihurtzea</p>

<p>Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?</p>		
	<p>Etxebizitetarako igogailuak Eskailera igogailuak Plataformak</p>	
<p>Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54</p>		<p>www.arlan.biz</p>

ZAZPI HONDARTZAIN ETA BAT GEHIAGO

Ekainaren 1etik irailaren 30era egingo dute lan hondartzainek, eta aurten, zortzi izango dira, iaz baino bat gehiago. "Hondartzetako zaintza lanak hobetu gura dira baliabide gehiago jarri, bereziki Meñakozen". Izan ere, Udalak jakinarazi duenez, Barrikagaz partekatutako hondartza horretan "zenbait kexa izan dira txakurrak bertan sartzen dituztelako". Hainbat zeregin edukiko dute hondartzainek: hondartzak eta inguruak zaindu eremu publikoak barne, erabiltzaileen kexak eta erreklamazioak hartu, sorospen zerbitzuak elkarlanean jardun, hondartzen egoera aztertu ingurumen ikuspegitik eta informazioa kudeatu, eta lege-hausteen egikaritza saihestu.

MUGIKORTASUNA ONTZEKO PROPOSAMENAK

Herriko mugikortasuna eta trafikoa hobetzeko proposamenak aurkeztu zituen Udalak maiatzaren 26an, Mugikortasun Iraunkoraren Foroan. Mugikortasunean eta hirigintzan espezializatuta dagoen ingeniari batek egin ditu, ikerketa lana burutu ondoren. Hainbat aldaketa proposatu ditu, horien artean kale batzuk noranzko bakarrekoeak egitea: "Horrela mesedetuko dira aparkalekuen berrantolamendua, espaloien zabaltzea beharrezkoa den tokietan eta bizikleta trafikoan sartzea", dio proposamenak. Gainera, bizikletaren erabilera indartuko lukete bidetegiak, eta hiri autobus bat abiatzea aurrekusi dute.

EUNATE AGIRRE HIRUGARREN BRASILEN

Bodyboardeko Munduko Zirkuituan, IBA World Tour, hirugarren lotu zen maiatzan Eunate Agirre sopoloztarra, Brasilgo Buzios hondartzako proban. Lehenengo izan zen Isabella Sousa, eta bigarren, Maylla Venturin. Txapelketako hurrengo hitzordua ekainaren 15etik 20ra bitartean izango dute, Venezuelako Arikok Aruban.

Sopelbus, hondartza gertu Herria eta hondartzak lotuko ditu Sopelbus zerbitzuak; TAO kobratzen hasiko dira



TAORik ordaindu gura ez duenak Sopelbus zerbitzua erabiltzea dauka udan

Sopelbus zerbitzuak eskaintza handitu du aurten: abenduaren 31 arte lotuko ditu herri erdigunea eta hondartzak. Bidaia 0,50 euro kostako da, eta 12 bidaiako txartelek, 5 euro.

Autobus zerbitzuak ibilbide bakarra egingo du. Atxabiribil hondartzatik urten eta Loroño kaletik igoko da Udaletxera. Jarraian abiatuko da Arriatera hondartzarantz; eliza aurretik igaro eta Larrabasterrako metro geltokian geldialdia egingo du hondartzara iritsi orduko.

Ekainaren 30era arte 07:30etik

10:30era eta 14:30etik 20:00etara ibiliko da. Uztailearen 1etik irailaren 15era, barriz, bigarren autobusa gehituko diote zerbitzuari. Gainera, Atxabiribil eta Uribe Kostako korridorearen arteko errepide barria hil honetan zabalduko dute.

Bestalde, eta udako kanpainagaz jarraituz, hondartza inguruetan TAO kobratzen hasiko dira ekainaren 15etik aurrera; irailaren 30era arte luzatuko da eta aparkatzeko 1.880 tokiri eragingo dio. Orduetgia 10:00etatik 20:00etara arte izango da, asteko zazpi egunetan. ○

Sopelako txakurren lagunen plataforma

"Ordenantza aldatu dute, eta ez da gutxi, baina gai asko dago landu barik"



Interneten topa ditzakezu perrosdesopelana.blogspot.com helbidean

Txakurren lagunek eta jabeek plataforma eratu zuten Sopelan, animaliek herrian ibiltzeko hobekuntzak lortzeko asmoz. Plataforma bitxiaren barri sakinago jakin gura izan dugu.

—Zer dela eta plataforma bat sortu?

—2009an Udalak hondartzen erabilera erregulatzeko ordenantza atera zuen. Kirol jarduerak eta txakurrek hondartzak erabiltzea erregulatu du. Egia esan, 2006an urte osoko erabilera debekatu zuten. Horregatik sortu genuen plataforma; izan ere, nori egiten dio kalte abenduko egun euritsueta txakurrak hondartzan ibiltzea? Udalagaz harreman oso positiboa eduki genuen; oso harkor agertu zen. Hondartzetako gaiak gain, txakurrak edukitzeko arategiaz berba egin genuen, hau da, txakurrentzako gauerako aisialdirako guneak prestatzeaz. Parke guztietan posible ez balitz, zenbaitetan guneak jartzeaz aritu ginen, ordutegi zehatzean lotu barik ibil

zitezten. Gainera, txakurrentzako parke handia sortzeko eta hondartzak hilabete batzuetan erabili ahal izateko aukeraz aritu ginen. Gure iradokizunak osoko bilkuran tratatzeaz hitz egin genuen. Azkenean, gutxieneko batzuk onartu dituzte, eta ez da gutxi, baina gai asko ez dituzte aztertu. Hondartzen erabilera debekatuta dago maiatzetik irailera, gainontzekoan erabili daitezke. Beraz, ordenantzan aldaketa batzuk onartu dituzte, baina aisialdirako guneetaz ez dute hitz

«Ordutegi zehatzetan txakurrak aske ibiltzeko guneak beharko lirateke»

egin. Horregatik sostengatu genuen maiatzeko mobilizazioa, txakurren alde egiten dena beti babestuko dugulako. —Aurrerantzean txakurrentzako guneak lortzeko lanean jarraituko duzue? —Momentuz geldi dago kontua, hauteskunde ondoen ikusiko dugu zer egin egoera hausnartu ostean. ○

LAIAK
Taberna

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak

RIPOLIN
BONDEX
DYRUP

Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barnikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

ZERBITZUEN GIDA, DABORDUKO KALEAN

Behargintzak, Berangoko Merkatarien Elkarteak eta Udalak herriko zerbitzuen gida argitaratu dute, elkarregaz lankidetzan. Maiatzan banatu zuten berangoztarren artean eta "beharrizan guztiak asetzen" dituela ziurtatu dute. Gidak gogoko establezimenduaren kokalekua aurkitzeko mapa ere badauka, haren jardueraren azalpen zehatzagaz eta arduradunakaz harremanetan jartzeko datuakaz batera.

HEZKUNTZARAKO 935.000 EURO

Azken urte bian hezkuntza publikoa hobetzeko 935.000 euro inbertitu du Udalak, Berango-Merana ikastetxea modernizatzea ahalbidetuz, udalak jakinarazi duenez. Diru gehiena 0-3 urte arteko eskaera handia asetzeko erabili zuten. Ondorioz, *San Marcos 2* izeneko eraikinean, 68 umerentzako haur eskola dauka Berango-Merana herri ikastetxeak. Gainera, *San Marcos 1* eraikineko traba arkitektonikoak ezabatzeko ere erabili ei du dirua Udalak. Ildo horretan, jolastoki zein aroztegiko "irisgarritasun arazoei ere urtenbidea eman gura" die ikastetxeak, eta horretarako, egitasmoak idatzi eta diru-laguntzak eskatu ditu. Bestalde, ikastetxetik 250 metrotara kiroldegia eraikiko du Udalak, futbol zelaiaren alboan. Ondorioz, 2011rako erabilera anitzeko kantxa eraikiko du, futbito, saskibalo, eskubalo edota boleibolerako aproposa; eta ikasleek, erabili ahalko dute.

Herriko mahastien salda

Berangoko txakolin egileen zukuia dastatzeko aukera **Txakolin Egunean, ekainaren 6an**



Berangoko txakolin egileak

Hamargarren Txakolin Eguna izango da ekainaren 6an, eguerdian. Herriko txakolina dastatzeko parada izango dute hurreratzen diren guztiek, aurten 22 ardo desberdin.

Berangokoak diren edota mahastiak herrian dauzkaten txakolin egileen saldak dira bertan probatzekoak. Bakoi-tzak ahal duen litro kopurua emango die antolatzaileei: "etxean egindako txakolina da, herritarrentzako". Dastatzeko, kopa erosi beharko da, 4 euroren truke. Hortik aurrera, librea da dastaketa. Antolatzaileek 1.000 kopa grabatu

dituzte. Gainera, txitxiburruntzia zein lukainka errea banatuko dute.

Bazkaldu aurretik sari banaketa egingo dute, baina Berangon ez dago irabazlerik ez galtzailerik, denei emango diete oparitxoak. Alkateak eta zinegotziek banatuko dituzte, eta gainera, zeregin horretarako beti eduki ohi dute kirolari ezagunen baten edo besteren laguntza.

Girorik ez da faltako. Txistulariek, trikitilariek eta txalapartariak jarriko diote soinua txakolinari. Eta amaitzeko, herri bazkarian elkartuko dira denak, txakolin egileak eta laguntzaileak. o

Estibalitz Anitua > Tribial Feminista

"Jokoaren bidez emakumeak kalera atera gura genituen"



Mankomunitateko kideak Tribial Feministagaz

Jokoei esker uste baino gehiago ikasten dugu. Aski ezaguna da historia, artea zein geografia galderakaz arrasti euritsuetako denborapasa izan daitekeen Tribial jokoa. Arrasate, Ondarroa, Basauri, Zierbena eta Ermuko Udalek eta Uribe Kostako Mankomunitateak horren bertsio interesgarria aurkeztu barri dute: Tribial Feminista. Orain dela urte batzuk, Anabel Sanz Basauriko Berdintasun Teknikariak aurkeztu zuen ideia; EUDELeko Berdinsarearen bitartez heldu zitzaion proposamena Mankomunitateari eta parte-hartzea erabaki zuen.

Estibalitz Anitua Mankomunitateko Berdintasun Teknikariak egitasmoaren helburuak azaldu dizkigu: "Alde batetik, jokoaren bidez emakumeok historian zehar izan dugun garrantzia erakustea, leku guztietan egon gara, ezkutuan mantendu bagaituzte ere; bestetik, sarean behar egitearen abantailak erakutsi gura

genituen. Azkenik, euskaraz egindako materiala sortu, berdintasuna lantzeko ez baitago materialik euskaraz". Kategoriak berdinak dira (arte, kirola, geografia e.a.); galderetako protagonistak baino ez dira aldatzen: "Emakumeak kalera atera ditugu". Jokoa egiten parte hartu duten herriakaz lotutako galderak ere badaude:

«Euskaraz egin dugu berdintasuna lantzeko ez baitago materialik»

"Uribe Kostan kirolariak aukeratu ditugu, horretan nabarmendu baitira batez ere gure emakumeak. Ez da erraza izan materiala lortzea".

Gazteentzat pentsatutako jokoa da nahiz eta adin guztietakoek erabil dezaketen. Gehiago jakin edo eskuratu gura duenak Mankomunitatera jo dezake.

Informazio gehiago: 94 657 92 82 / www.uribekosta.org

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
irati.aldorta@gmail.com

irati

OPARIK MODA GAZTEA

OSABIDE HORTZ LINIA
Arantza Etxebarria

- Odontologia oskorra
- Omsdentzia
- Periodontia
- PADI

Bilbarr 27, beheko solairua
ALGORTA
94 430 76 96

BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 577 • regaraizar@bouskalm.net
Eskola kalea 1 • ALGORTA

AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARRREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEN GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / Tf. 94 491 17 86

IBILGAILUENTZAKO SARRERA ITXIKO DUTE MURIOLA HONDARTZAN

Azken urteotan biderkatu egin da Barrikako Muriola hondartzako erabiltzaileen kopurua. Horregatik, ibilgailuei sarrera debekatzea eta hondartzara sartzeko bidea hobetzea erabaki du Udalak. Horrela, turismo jasangarriaren alde egin gura du Udalak. Ibilgailuentzako sarrera itxi arren, larrialdietarako ibilgailuak sartzeko ahalbidetuko duen sistema jarriko dute. Horrez gain, bidea estutuko dute eta aldeetan lurra botako dute aurrerago zuhaitzak landatu ahal izateko. Errekaren ertzetan jesarlekuak jarriko dituzte eta ibilbidean zehar paperontziak.

URA AURREZTEKO KANPAINA MANKOMUNITATEAN

Uribe Kostako Mankomunitatea URA Uraren Euskal Agentziaren laguntza ekonomikoagaz, ura aurrezteko kanpaina abiatu du. Etxeko txorrotan jartzeko gailuak banatuko dituzte, ur gutxiago erabiltzen lagunduko dutenak; horregaz eta uraren erabilpena kontrolatuz, erabilpen egokia ziurta daitekeela uste du Mankomunitateak. Herriko ur kontsumoaren %70 etxeetan egiten da; Mankomunitateak hartzen dituen herrietan kontsumoa ohikoa baino handiagoa da oraindino, ureztatzeko ere erabiltzen delako. Aipatutako gailuak, herrietako Kontsumitzailearen haretarako bulegoetan eskura daitezke.

GORLIZ

Itsasargira bisita gidatuak zapatuetan urrira arte



Itsasargira joateko bisita gidatuak Hondartzape jatetxetik urtengo dira

Turismo Bulegoak Gorlizko itsasargira joateko bisita gidatuak eskainiko ditu urriaren 30a arte. Maiatzean hasi ziren eta hamabostean behin egingo dira, zapatuetan. Turismo bulegotik itsasargirako ibilbideak duen aberastasuna azpimarratu gura izan dute: *“Aurki itzazu Gorlizko Itsasargiko ibilbideak eskaintzen dituen natur eta ondare altxor harrigarriak, 6.000 urteko aremu-neak, XVIII. mendeko Azkorriaga gotorlekuko aztarnak, 40. hamarkadako kosta bate-*

ria, paisaia, fauna, pottokak, oreinak...”.

Bisitak goizeko 11:00etan urtengo dira Hondartzape jatetxearen aurrealdetik eta ordu bi iraungo dute. Ekainean 12an eta 26 egingo dira. Zailtasun baxuko ibilbidea da; izena ematean hiru euro ordaindu behar dira. Parte-hartzaile bakoitzari txartel bat emango zaio, Gorlizko itsasargiko horma-irudia Turismo Bulegoan doan jaso dezan. ○

Erreserbak: 94 677 43 48 / turismo@gorliz.net

Mai. 31 - Eka. 14

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Arte aplikatuak eta larru tailerrak.** Romoko erakustaretoan. Ekainaren 11 arte.
► **Dinosauro parkea.** Txurruka kaian, urriaren 31 arte.

URDULIZ

► **Pintura tailerreko lanak.** Kultur Etxean. Ekainaren 13ra arte.

PLENTZIA

► **Josketa tailerreko lanak.** Goñi Portalen, ekainaren 15era arte.

LEIOA

► **Mingote. 90 urte.** Kultur Leioan. Ekainaren 27ra arte.
► **Margolari gazteak.** Errekalde Plazako Nagusien Etxean. Ekainaren 27ra arte.

ZINEMA

GETXO

► **80 egunean.** Lauren zinemetan. UK-n sarrerak opari dituzte, deitu: 94 491 13 37.

MUSIKA

LEIOA

► **Orkestra marxista eta Eigen System.** Kurkudi tabernan. Ekainaren 4an, 22:00etan. Doan.
► **San Juan kontzertuak.** Kultur Leioako Auditoriumen. Ekainaren 10etik 13ra.

GETXO

► **Uribe Kostako Bertsolari Txapelketa: Finala.** Algortako Villamonte Kultur Etxean. Ekainaren 12an, 18:00etan.



Algortako Portu Zaharreko jaiak

► **Herri olinpiadak**

Jai herrikoien aldeko olinpiadak Algortan

Herriko elkarte, talde eta banakoak buru-belarri dabilta jai eta herri-kulturaren dinamizazioan, auzoz auzo. Izan ere, jaiak, *“herria eraikitze eta bizirik mantentzeko bide legez, herriak gozatu eta eraiki ahal dituen jaiak”* gura dituzte. Baina hori lortzeko guztien indarrak behar dituzte eta ekimen polita antolatu dute: Koadrilen arteko olinpiadak. Ekainaren 12an izango dira Algortako Geltokia plazan, 17:00etan. Proba originalak prest daukate, giro polita sortuko dela ezin uka. Gainera, ekitaldia eta poteo musikatu ere egingo dituzte. Hainbatek izena eman du, zuk ere animatu zure koadrila eta murgildu jai giroan, lagun artean, lehia osasuntsuan...

• **Non:** Algortako Geltokia plazan • **Noiz:** Ekainak 12, zapatua

► **Getxotar abesbatzen eguna.** Algortako Biotz Alai plazan. Ekainaren 13an, 18:00etan. Doan.

ANTZERKIA

LEIOA

► **Pirritx, Porrotx eta Marimotots.** Kandelazubieta kiroldegian. Ekainaren 2an, 16:45ean eta 18:30ean.

URDULIZ

► **Umeentzako antzerkia: Ali.** Kultur Etxean. Ekainaren 4an, 19:30ean. 4 euro.

GORLIZ

► **Pirritx, Porrotx eta Marimotots.** Iberrebarrin. Ekainaren 6an, 18:30ean.
► **Maite Arrese ipuin kontalaria, euskaraz.** Ikastetxean. Ekainaren 12an, 18:30ean.

GETXO

► **Eskola Antzerki Jardunaldiak.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Ekainaren 5ean eta 6an.

BESTEAK

GORLIZ

► **Euskeraz olgetan: puzgarriak.** Iberrebarrin plazan. Ekainaren 5ean, 12:00etan.

URDULIZ

► **Euskeraz olgetan: amamaren jolasak.** Pilotalekuan. Ekainaren 8an, 17:30ean.

SOPELANA

► **Munarrikolandako trikuharriak bisitatzera txangoa.** Aitxu! Euskara taldeak antolatuta. Ekainaren 6an, 10:00etan Larrabasterrako plazatik.
► **Txori abeslarien lehiaketa.** Urko zelaietan. Ekainaren 6an, 09:30ean.
► **Ardi-txakur alemaniarren lehiaketa.** Txakur Etxean. Ekainaren 13an, 09:30etik 15:00etara.

ERANDIO

► **Aholkularitza sexologikoa.** Drogomenpekotasun gelan. Ekainaren 11n, 18:00etatik 20:00etara.

BERANGO

► **Sukaldaritza tailerra.** Ludokluban. Ekainaren 11n.
► **Ping-Pong txapelketa.** Gaztelekun. Ekainaren 12an, 17:00etan.
► **Futbol Taldearen 25. urteurrena.** Ekainaren 13an, domeka.

LEMOIZ

► **Euskeraz olgetan: herri kirolak.** Urizarreko eskolan. Ekainaren 14an, 17:00etan.

PLENTZIA

► **Makillaje ikastaroa: izen-ematea.** Goñi Portalen, ekainaren 30era arte.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROZTEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Akordaten, hunkituta

Maiatzaren 13an Getxo Akordaten naz 2 dokumentala aurkeztu genuen Andra Mari elizan. Jendez lepo egon ziren elizako bankuak, nahiz eta egun horretan abadeak ez zuen mezarrik eman. Herriko historia bizia diren gizon-emakumeen ahotsak erakarrita etorri ziren ume, gazte eta edadetuak estreinaldi mundialera. Barreak entzun genituen publiko artean; negar malkoren bat ere isuri zen. Eskerrik asko eta hurrengora arte!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





San Antonio

erromeria Areetan

1950eko ekainaren 13ko argazkia dugu honako hau. Areetan ospakizun eguna zen, San Antonio erromeria. Lagun koadrila argazkilariaren txokoa ikus dezakegu; ezkerretik hasita, Dolores Cajigas, Mari Tere Utrilla, Mertxe Porugal, Modesta Morcillo, Mari Angeles Morcillo eta beste lagun bat (azken honen izena ez dugu aurkitu). Garai horretan, ohikoa zen jaietan argazkilariak hormairudi handi baten ondoan ikustea; hurbiltzen ziren lagunak paisaia eder baten aurrean, kasu honetan bezala, Garcia korazaontziaren bizkarrean argazkiak egiten zituzten pezeta pare baten truke. Gaur egun ez da horrelakorik ikusten; jaietan argazkiak egin bai, baina etxera eroan eta photoshopagaz "tuneatzen" ditugu.

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[berbetan]

Oraintsu hartu du Paul Bilbaok (Algorta, 1971) Xabier Mendigurenen eskutik Kontseiluko Idazkari Nagusi izateko lekukoa. Euskal Filologian lizentziadun, eta Hizkuntza Plangintzan zein Giza Eskubideetan graduondokoak dituen algortarrak Kontseiluaren barne dagoen Hizkuntz Eskubideen Behatokian sorreratik jardun du beharrean, eta bertako zuzendari izan da azken sei urteotan. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko Idazkari Nagusi izango da aurrerantzean eta hizkuntzaren normalizazioa bizkortzea, kudeatzea izango du erronka nagusietako bat.

Paul Bilbao

normalizazioaren bidean

Testua: **I. Sagarminga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Labur-labur, zeintzuk dira Kontseiluaren egitekoak eta helburuak?

—Kontseilua hasi zenean, gizarteari euskararen aldeko atxikimendua eskatu zion; hori erakusteko estadioetan egindako ekitaldiak egon ziren, milaka eta milaka pertsonak agertu zuten atxikimendua. Hori eskatu zitzaien atxikimendua, beste barik, konpromisorik barik, Kontseiluak atxikimendua agertzeko tresna jarri zuen, estadioak, horiek betetzea eskatu zitzaien. 10 urte pasatuta, beste hausnarketa bat egin zen, hurrengo zikloari begira ildo estrategikoak zehazteko; ohartu ginelako *Bai, Euskarari* leloa ez zela nahikoa; atxikimendu hutsagaz ez dugula hizkuntza normalizatuko. Eta Kontseiluaren helburua hori da, hizkuntzaren normalizazioa bizkortzea. Hausnarketaren ondorioa leloa aldatzea izan zen: *Bai, Euskarari*-tik *Euskaraz Bai*-ra. *Euskaraz Bai* hori kudeatzea izango da nire ardura, gutxienez saiatuko naiz. *Euskaraz Bai* esatean eragile eta subjektu desberdinei konpromiso ezberdinak eskatzen dizkiegu, adib. herritarrari esaten diogu ez dela nahiko euska-

rarekiko atxikimendua, orain konpromisoak behar ditugu hizkuntzaren alde; hori nola ulertzen da? Ez dakienak ikasi behar du, dakienak erabili behar du eta eskatu behar du, euskaraz bizi behar du. Eragile sindikal, sozial, politikoei gauza bera, beraiek ere badaukate zer esan eta egin hizkuntzaren normalizazioan; hasi beharko dute hizkuntzaren zehar-lerrotasunak xteratzen dagokien tokietan. Eta agintariei, noski! Azken urteetako eta egun Euskal Herrian dauden hizkuntza

“Atxikimenduagaz bakarrik ez dago hizkuntza normalizatzerik, orain konpromisoak behar ditugu”

politikak kontuan hartuta, argi dago ez dela euskara normalizatuko. Kontseiluak hor ere dei egiten die horiek aldatzeko. Kontseiluak badu hizkuntza politika berri eraginkorrerako proposamena, hor jaso dira, gure ustez, zein izan beharko liritekeen irizpideak. Gero, Kontseilua erakundeen erakundea da, bazkideek elikatzen gaituzte, beraiek dira Kontseiluaren

motorra; inoiz baino gehiago behar dugu kohesioa bazkideen artean, ohartzea zenbat egiten ari garen bakoitza bere alde-tik... Azken finean, bazkideek ahalbidetzen digute euskaraz bizitzea, beraiei esker badaukagu egunkari bat, baditugu euskarazko ikastetxeak, baditugu aukerak helduak euskalduntzeko, zientzia euskaraz, lan munduan planak dituzte batzuek e.a. Horregatik beraiei ere beste pauso bat eskatzen zaie. Bakoitzak bere kabuz ezin egin dezakeena, guztiok batera, Kontsei-

luaren bidez ea egiterik dugun.

—Zuen Hizkuntza Politika proposamenaz galdetzeraz hurreratu al zaizkizue?

—Bai. Orain hasiko gara hori gizarteratzen; zapatuan (maiatzak 15) Nafarroako manifestazioan gako batzuk eman genituen. Badakigu lan oso konplexua dela; ez zaie bakarrik administrazioei azaldu behar, herritarrei ere bai, eta gizarte eragi-



leei ere. Guztiok ikusi behar dugu hori dela bidea. Proposamenean, marko teorikoa, neurri zehatzak azaltzen dira, hizkuntza politika horrek zer ezaugarri izan behar dituen: hizkuntza eskubideen bermea eta euskararen erabilera soziala ipar dituena, belaunaldi berriak euskaldunak izango dituela bermatuko duen hezkuntza sistema, alor sozio-ekonomikoan eragingo duena, hedabideetan ere beheko kuotak ezartzea eta euskarazko hedabideak sustatzea, unibertsitatea eta lanbide heziketa euskalduntzea e.a. Beti kontuan hartuta euskarak beste estatus bat behar duela, behar duela lehentasunezko hizkuntza izan, ofiziala, bada toki batzuetan, baina beharko luke alderdi osoan. Lehentasunezkoa, egoera gutxituan dagoelako; eta ezagutzeko beharra ere aldarrikatu behar da, gure hizkuntza normalizatuko bada, ezagutze unibertsalizazioa tartean egongo da, bestela ez dugu inoiz lortuko hizkuntza normalizatzea.

—**Kontseilua jaiotzen 12 urte joan dira, atzerantz ala aurrerantz goaz?**

—Alde ezberdinetatik begiratu beharko litzateke. Kontseiluari dagokionez, argi dago aurrera egin duela, tresnak sortu dituela, adib.: Hizkuntza Eskubideen Behatokia eta *Bai Euskarari* ziurtagiria, eremu sozio-ekonomikoan eta eskubideen aldarrikapenean eragiteko tresna oso garrantzitsu bi. Gero, errotan dituen dinamikak ere badira, bai herrietan bai udalen hizkuntza politiken neurketak e.a. Bestalde, euskalgintzari begiratzen badiogu, uste dut, nahiko argi dagoela gero eta indartsuagoa dela, gero eta tresna gehiago jartzen dituela gure esku erabilera sustatzeko, interneten e.a. Euskalgintzak bere lanak egin ditu. Administrazioei dagokienez, esandakoa, 10-12 urte pasa dira Kontseilua sortu zenetik eta oraindik ohartzeko gara ez dardela mekanismo nahikoak eta egokiak gure hizkuntza normalizatzen. Administrazio ezberdinak daude, eta bakoitzaren politikak ezberdinak dira; baina, gaur egun indarrean dauden politikak ez da

euskara normalizatuko; horregatik bizkortu behar da prozesua. Zurrumbilo batean bizi gara gure gizartean, zurrumbilo munduan... ez dakigu hizkuntzen ekologia ere mantentzerik dagoen. Gure ustez, inoiz baino beharrezkoagoa da gure hizkuntzaren normalizazioa bizkortuko duen hizkuntza politika abian jartzea.

—**Behatoki zuzendari izan zara azken**

“Bakoitzak bere kabuz ezin dezakeena egin, guztiok batera, Kontseiluaren bidez, ea egiterik dugun”

6 urteotan, izango duzu zer kontatu.

—Pena handiz utziko dut; 9 urte izan dira, proiektuan hasieratik egon izanak asko irakatsi dit. Urterik urte kexa kopuru handiagoa bideratzen du, horrek esan gura du herritarrentzat erreferentzialak garela. Behatokian badakigu zein den egoera, baina tresna bat jarri gura genuen herritarrek hori baliatzen hizkuntza eskubideen urraketan aurrean; zorionez, herritarrek erantzun dute. Iazko txostena laster aurkeztuko dugu, beste urte batez kexa kopuruak gora egin du. Kontraesankorra irudi lezake Behatoki zuzendariak, edo zuzendari ohiak, esatea zenbat eta kexa gehiago jaso orduan eta hobeto. Baina egia da, kontua da guk behar dugula, benetan, herritarren aktibazioa. Iaz 1.415 espediente bideratu ditugu, 5.000 balira askoz ho-

“Iruñean erakutsi genuen benetan gizartea aldeko dugula... euskalgintzak indar handia duela...”

betu! Horrek errealitatea ez luke aldatuko, baina bai erakundeek edo dena delakoei jakinarazteko 4.000 aldiz eskubideak urratu direla... Gutxienez ikusiko lukete herritarren kontzientzia hori, eta ia beraien erabakiak aldaraz ditzaket. Alde horretatik Behatokiak lan txukuna egin du, ari da, Nazioartean ere erreferentzialtasun handia

du, bai NBEen bai Europako Kontseiluan hainbatetan egon gara, salatu dugu, kasu egin digute. Behatokia osasun onean dago; zoritxarrez, oraindik beharrezkoa da. Nahiko nuke nik itxi behar izatea helburua bete duelako, hizkuntza eskubideen urraketak kontu isolatuak direlako! Tamalez, hori ez da egoera.

—**Erronka barririk?**

—Behatokiarena, bere lanagaz jarraitzea eta erabiltzaile gehiago izatea. Hori da gure informazio iturria diagnosiak egiteko; zenbat eta urraketa-kexa gehiago, gure azterketak are egokiagoak izango dira. Kontseiluari dagokionez, “pauso bat harago” egiazkoa izatea, *Euskaraz Bai* hori benetan gizarteak, herritar, erakunde, eragile sindikal politiko eta abarrek bere egitea, eta horren arabera burutzea beraien jardura. Uste dut, Iruñean erakutsi genuela benetan gizartea aldeko dugula, batu ginen eta erakutsi genuen badugula indarra, herritarrek eman dutela indarra, euskalgintzak indar handia duela... Seguru nago, batzuetan esaten didate positiboegia naizela, baina, benetan uste dut aukerak baditugula pauso bat harago egiteko, guztion konpromisoagaz, eta egin egingo dugu!

—**Egoeraren laztasunagatik Nafarroak Kontseiluan atal berezia dauka?**

—Kontseiluak nazio mailan egiten du lan. Baina, ikusi zen Nafarroako Gobernuak errotan duen hizkuntza politikaz gain, beste urrats bat eman zuela aurrekontuen murrizketakaz. Egoera jasanezina zen aurrekontuena baino lehen. Bazkideek be-

raiek agertu zioten Kontseiluari zerbait egiteko beharra, eta bakoitzak bere kabuz ezin dezakeena guztiek egin dute, Kontseiluagaz bat. Manifestazio horren adibide izan da, han egon dira ikastolak, *Berria*, AEK, Euskal Herrian Euskaraz, Sortzen Ikasbatuaz, Elkar megadendak e.a. Aurretik Festa egin zen, 200eko zerrendatik hasi eta 2 hilabete eskaseta 4.000tik gora atxi-

“Pentsatzea legeak aitortzen ez diolako eskubidez gabeturik dagoela, askotan gertatzen da Iparraldean”

kimendu lortu, eta azpimarratzekoa dena, Nafarroan euskararen alde inoiz egin den manifestaziorik jendetsuena!

—**Nafarroakoa baino beltzagoa Iparraldekoa, hango lanketa gaxagoa izango da.**

—Bai. Euskarak ez du estatus juridikorik, Frantziako Estatuarentzat ez gara, ez dugu eskubide kolektiborik; euskararen balioa erabat sinbolikoa da. Horrek eragina dauka herritarrengan, uste dutelako eskubiderik ez dutela, eta hori oso larria da; pertsona batek pentsatzea legeak eskubidea aitortzen ez diolako eskubidez gabeturik dagoela, zoritxarrez Iparraldean askotan gertatzen da. Horregatik Behatokiak lan pe-

dagogiko handia egiten du: hizkuntza eskubideen kontzeptua gizarteratu eta jendea animatu nahiz eta legea aldeko ez izan kexak egitera, bideratuko ditugula esanez... Ipar Euskal Herriari begira lan handiagoa egin dugu nazioartean, NBEk Frantziako Estatuaren jarrera salatzea lortu dugu. Halere, egoera nahiko makurra da. Unesco-ren hiltzorian dauden hizkuntzen

egoeraren atlasaren emaitzan euskara Iparraldean beti agertzen da. Hori da alde ezkorra, baina uste dut, zer egiten dugun eta zer egin dugun ere kontuan hartu behar dugula: gero eta ikastola gehiago dago, jende gehiagok ikasten du euskara heldua denean, sorkuntzan, materialean, literaturan e.a. Iparraldean ere gauza gehiago ekoizten dira. Orduan, uste dut mezu hori ere zabaldu behar dugula; gauza bat da egoera, eta beste bat euskalgintzak eta herrigintzak zenbat gauza egin duen, kontuan hartzekoak ere.

—**Hamabi urteren ostean, zein da Xabier Mendigurenek utzi dizun zorra?**

—Oraindik hemendik dabil! Askotan esan dut, agian jendeak Kontseilua zer den ez duela oso argi izango, beti lotzen dira Kontseilua eta estadioak, baina, Xabier euskararen eta normalizazioaren erreferente izatea herritar, eragile, alderdi gehienek aitortzen dutela uste dut. Niretzat ohorea da bera ordezkatzeko, baina benetan ohorea izan da beragaz lan egiteko aukera izatea. Xabierrek marka utzi duela uste dut, oreka mantentzen, erakundeekiko tratuan, beti positibo izaten saiatzen... Badaki berarekiko lotura, telefonikoa bada ere, ez dudala etengo! Zorrak? Berak askotan esan du zuzen zor bat zela *Egunkaria* itxi zutenean horrek guztiak sortu zuena; eta agurrik ederrera izan dela absoluzioarena. Bestetik, Kontseilua beti egon da prest administrazioak eta erakundeak elkarlanean aritzeko, eta Xabierrek esan du batzuek bai, baina beste batzuek ezin izan duela lortu, eta hori ez duela inoiz ulertu.

—**Horri eutsi beharko diozu zeuk ere.**

—Eutsi beharko diot. Harremanak eragile guztiak izan behar ditugu, eta sinergiak lortuz probestuko ditugu. Kontseiluak beti euskararen beharretatik egiten du lan, eta behar horiek jakinarazten dizkie administrazioei, agintariei, sindikatuei, alderdi politikoei, guztiei; hori da gure lana. ○

Uribe Kosta, “gune erdaldunean”

—**Uribe Kosta “gune erdaldunean” sartzen dute; hamaika bertsolari, euskara elkarte, agerkari digital, aldizkaria e.a., zein euskalgintzako erreferente andana uribekostarrak izanda ere.**

—Batetik, gure eskualdean alde handia dago herri batetik bestera. Bestetik, azken hileotan Getxo mailako Sarea Josten ekimena ezagutu dut, eta uste dut halako ekimenak beharrezkoak direla. Azkenean, errealitatea da, Uribe Kostako herri gehienetan euskara elkarteak daude, euskaltegiak, ikastolak... Askotan ez dugu horrelako errepauso bat egiten, eta gainera, ohiko euskalgintza horri

gehitzen badiogu bestelako eremuetan dabilten kirol, kultura edo bestelako elkarteak, Sarea Josten-en bezala, eta gai baldin bagara ekimenak elkarrengat egiteko, nik uste, hori aurrerapausoa dela. Argi dago gure eskualdean, herri askotan are gehiago euskalduntze-tasa baxua dela eta, erabilera esparruak zabaldu behar direla, landu behar dela... Euskara elkarteak egiten ari diren lana izugarria da, hori ere kontuan hartu beharrezkoa da. Azken finean, saiatzen dira euskaldunoi aukerak eskaintzen euskara erabiltzeko, eta badira hainbat proiektu; niretzat hurbilekoena Bizarra Lepoanek

egiten duena ume-gaztetxoentzako Bapiruke eta... Edota liburu baten inguruan hitz egiteko aukera ematea. Apurka-apurka bide horiek zabaltzen ari dira. Euskalgintza bere lana egiten ari da, orain kontua da beste eragileek, instituzioek eta abarrekoek ere beraien lana egin behar dutela. Gure hizkuntza normalizatuko da baldin eta guztiok norabide berean jartzen bagara; euskalgintza da norabidea, ari da bere funtzioa betetzen, baina instituzioek ere hartu beharko lukete bide hori eta gero baita herritarrok ere, guk ere badugu gure erantzukizuna.



Sudur gorriak...

...eta barre algarak entzun ziren Leioan maiatzaren 20tik 23ra. Umore Azoka egin zuten eta giro bikaina izan zen. Antzerkia, dantza eta sudur gorriak ikusi genituen kalez kale: pailazo exhibizionistak, zirkoa, antzerkia, dantzariak... zernahi eta nonahi, umeen eta nagusien gozamenerako. Uda hilabete aurreratu zen eta oparia egin zion Umore Azokari, eguzkiak ere lagundu baitzuen guztien aldartea alaitzen. Gainera, hiru lan saritu zuten epaimahaiak: Gaupasa Ekoizpenen eta Nacho Vilar Ekoizpenen *Habitus Mundi*, Carmen San Estebanen *¿Entras?* eta Atempo Circ-en *Atempo*.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



H20h! Clowns (Katalunia)



H20h! Clowns (Katalunia)



Manic Freak (Argentina)



Abi Collins (Erresuma Batua)



Nacho Villar-Gaupasa Producciones (Murcia)



Chacovachi (Argentina)



Capitan Maravilla (Andaluzia)



Circ Petit (Katalunia)



Teatro-teatro (Euskal Herria)



En la Lona (Euskal Herria)



Strong lady (Australia)



Teatro-teatro (Euskal Herria)



Oreka Zirko (Euskal Herria)



Nacho Villar-Gaupasa Producciones (Murtzia)



BETIKO

IKASTOLA

**GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

- Ingelera 4 urteik. Frantsesa DBHn.

- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

- Leioako Ikastolen Elkartaren ikastola bakarra.



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GARRKO



**GIZONENTZAKO
MODA**

Tel: 94 460 70 84
ALGORTA

[zinema]

Bihotza ala burua?

Maitasuna, helduaroa eta homosexualitatea, **80 egunean** film estreinatu barrian



Informazio gehiago: www.80egunean.com

«**Juan Mari** senarrak mus partida jokatzen bitartean, baserrian itxoi ten lotzen da Axun egunero. Halako batean, 70 urteko Axun, alabaren senar ohia zaintzera joango da ospitalera. Bere ezusterako, alboko gaixoa zaintzen duen emakumea Maite da, nerabazaroko lagun mina, 50 urte luzetan ikusi ez duena. Gaztetan zuten kimika oraindino bizirik dagoela sumatuko dute berehala. Axolagabe gozatu eta dibertzen dira alkarregaz; Axun, Maite lesbiana dela jabetzen den arte. Bere sentimenduak zalantzan ipiniko ditu Axunek: zeri jarraitu, buruari edo bihotzari?». Hori berori da Jon Garaño eta Joxe Mari Goenaga zuzendari gipuzkoarren fikziozko lehenengo film luzearen sinopsia. Filmaren lehenengo aurkezpena Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian egin zuten eta oraintsu (hilak 21) estreinatu barri dute zinema komertzialetan. Euskaraz pentsatu eta gauzatutako lana da *80 egunean*, eta Itziar Aizpuru (Axun), Mariasun Pagoaga (Maite) eta Joxe Ramon Argoitia

(Juan Mari) aktore protagonistek hizkuntza aldaerek, euskalkiek, naturaltasuna eta freskotasuna ematen diote Barton Filmsek banatuko duen eta Irusoin eta Moriarti etxeek ekoiztutako pelikulari. Gai unibertsalak bezain hurbilak jorratzen ditu: maitasuna, eta horri lotzen zaizkion edadetuen, emakumeen eta lesbien ikuspegiak; jakinduria bihotzak

«Euskaraz pentsatutako eta gauzatutako lana dakarte Jon Garaño eta Joxe Mari Goenaga»

ala buruak emon dezakeen aspaldiko galdera islatu gura; edota familiaren loturak, «gura dena» egitea «behar dena» arteko borroka e.a. Dramaren eta komediaren arteko nahasketa legez aurkeztu dute aspalditik alkarregaz lanean diharduten zuzendariak, eta azaldu dutenez, aipatutakoez gainera, «homosexualitatea zinean askotan pertsonaia atormentauakaz» erakusteko joera ere alboratu gura izan dute lan honeguz. o

Getxoko Blues jaialdia

Hilaren 18, 19 eta 20an **Biotz Alai** plazan eta lehenengoz **ordaindu beharrekoa**



Raimundo Amadorrek hilaren 18an eskainiko du kontzertua

Romoko Santa Eugenia plazan egiten dabilzan kultur etxe barriko lanak direla eta, Algortako Biotz Alai plazan ipiniko duten karpapean egingo da XXII. Getxoko Nazioarteko Blues Jaialdia. Kolore askotako blues doinuek bere egingo dute Getxo hilaren 18tik 20ra, osterora horiek gozatu ahal izateko, Getxoko Blues jaialdiaren historian lehenengo biderrez, ordaindu egin beharko dute zaletuek. Antolatzaileek azaldu dutenez, «leukotasun-prezioa» ipini diete emanaldi nagusiei, bakoitzak 5 euro. Hala, lehenengo egunean, Eric Sardinak gitarra jotzailea eta bere Big Mo-

tor taldeak eskainiko dute kontzertua (21:00), blues-rock zaleen gozamenerako. Floridakoak jaialdi getxoztarrean parte hartzen duen bigarren aldia izango da eta gonbidatu berezia izango du alboan, Raimundo Amador gitarra jotzaile ezaguna. Bigarren egunean, Bettye LaVette abeslari afroamerikarraren emanaldiak (21:00) soul giroa emongo dio jaialdiari. Azken egunean «hegoaldeko bluesman zaharren» egiteko modua hurbilduko duen Music Maker Foundation (Dr. Burt, Pat Cohen, Eddie Tigner, Beverly Watkins, T. Brown, Lil' Joe) karabanaren txanda (20:00) izango da. o

Leioa >

San Juan kontzertuak

Aurten hilaren 10, 11, 12 eta 13an egingo dira San Juan Kontzertuak Leioan. Emanaldiak arrastiko 20:00etan hasiko dira eta Kultur Leioako Auditoriumen izango da horiekaz gozatzeko bilgunea. Antolatzaileek jakinarazi dutenez San Juan Kontzertuetan parte hartuko duten taldeak hurrengoak dira: Leioa Kantika Korala, Orpheo Ganbera Abesbatza, Leioako Gazte Orkestra eta Leioako Musika Banda. Udalerriko abesbatza, orkestra zein bandaz gozatzeko ez da sarrerik ordaindu behar.

Informazio gehiago:
www.kulturleioa.com

Getxo >

Abesbatzen Eguna

Hilaren 13rako ipini dute Getxotar Abesbatzen Egunerako hitzordua. Aurten hirugarren ekitaldia beteko du ekimenak eta emanaldiak Algortako Biotz Alai plazan izango dira arrastiko 18:00etatik aurrera. Bertara hurreratzeko direnek herriko hainbat abesbatzek edota koruk eskainiko duten kantuek gozatu ahaliko dute. Hain zuzen ere, ekitaldian parte hartuko duten abesbatza getxoztarrek hurrengoak izango dira: Erromoko Kantariak, Irutasun, Zozoak, Itxartu, Tangorako Soinutarrak, Gorrondatxe, Gizatiar, Eskuz Esku, Biotz Alai, Ondarreta eta CEP (Erromoko haur abesbatza). Eta sarrera dohainik izango da.

Informazio gehiago: www.getxo.net

diskoak

Zuzenean
Jean Bordaxar
Elkar



Jean Bordaxar, Jean Noël Pinque, Jean Pierre Luro eta Robert Larrandaburuk a *cappella* abesten dituzte Pirinioetako kantuak. Azken urteotan handik hona ibili dira atzoko eta gaurko zuberotar kantuak abesten. Lau ahots berezi eta ederrek Usurbilen zuzenean grabatu zuten diskoa, abenduaren 12an, Sutegi auditorioan.

Mantisa
Mantisa
GOR



Mantisaren ibilbide osoaren isla garbia da lehen lan hau. Hamasei abestiek jasotzen dituzte laukotearen bizipenak, «*musika eta letren bidez forma emandako esperientziak*». Zarauztarrek 2004an sortu zuten taldea eta hardcore estilora lantzen hasi ziren, baina egun, rockaren estilo guztiak jotzeko prest daude.

Ortozik
Sokaide
Babel Music



Musika eta kultura beste era batean ezagutzera emateko asmoa daukate, biolina eta trikitixa nahastuz. Folk oinarri, hainbat estilok osatzen dituzte euren abestiak. Sokaide dira: Naroa Gaintza (ahotsa), Ibon Olaguenaga (ahotsa eta trikitiak), Urko Izquierdo (biolina), Ander Tejerina (kitarrak) eta Josu Barrenengoa (bateria).



Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean

Tf. 94 430 15 00

(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Literaturia aurton bere


1111 irakurle batzea izango du literatura plaza ekitaldiak **helburu**

Herriz herri ibili da azken bi hilabeteotan *Literaturia*. Izan ere, adarrak zabaldu eta “bi alditan” banatu da ekimena aurren. Lehenengoa, esan legez, “Literaturia, herriz herri” apiril-maiatz bitartean gauzatu da, “*irakurle klubek, elkarteek eta oro har zaleek antolatutako ekitaldi sortez osatua; formatu anitzeko agenda kulturala eskaintzeaz gain, literaturari loturik antolakuntzan diharduen jendearen lana ikusgarri egitea izan du helburu*”, eta horretarako Larrabetzu, Iruñea, Orereta, Zamudio, eta Zarautzen errezitaldiak, mahai-inguruak eta bestelakoak eskaini dituzte.

Bigarren aldia, ekainaren 4, 5 eta 6an garatuko da Larrabetzun. Bigarren urtez,

«II. Literaturia jardunaldia ekainaren 4, 5, eta 6an Larrabetzun»

“Literaturia, euskal literaturaren plaza” jardunaldiak “*azoka gunea, literaturari loturiko ekitaldiak, errezitaldiak, antzezlanak, kontzertuak, elkar topatzeko guneak, liburu aurkezpenak, mahai-inguruak e.a. batzen dituen hiru eguneko hitzordua, gogoetarako plaza eta plazera uztartzeko*” aukerak eskainiko ditu. Aurtengo, Literatura Eskolaren, Larrabetzuko kultur eragileen zein Euskal Herri osoko irakurle eta zaleen sare zabal



II. Literaturia iragartzen duen irudia

bategaz elkarlanean antolatutako ekimenak erronka barria ipini du: 1111 irakurle batzea; “*Mila irakurle eta hamaika gehiago, mila literaturazale eta hamaika gehiago, mila kulturazale eta hamaika gehiago, mila euskaltzale eta hamaika gehiago batu gura doguz; mila berba eta hamaika gehiago, mila kantu eta hamaika gehiago, mila zorion eta hamaika gehiago gure kulturaren epelera hurreratzen zarien guztioi*”. Eta horretarako egitarau zabal (UK zenbaki hau inprentara bidean zihola, behin-behinekoa zena; beheko estekan zehaztuko dutena) prestatzen dabilta. ○

Informazioa: www.larrabetzu.org/literaturia

liburuak



Gizakiaren mina
Karlos Linazasoro
Erein

Gizakiaren mina kontagai duten ironiaz betetako ipuin txirikordatuak aurkezten dizkigu oraingoan Linazasorok. Samurtasuna eta xumetasuna dira eskaintzen diguten altxorrik handiena. Autoreak, bere ohiko bidetik alde egin eta asmo barriakz sailatu da.



Egunkaria amets baten...
Askoren artean
Ttartalo

Euskaldunon Egunkariak idazteko batu dira komunikazioko lau aditu. Hamabi urtez martxan egon zen egunerokoak zein hori ixtera behartu zuen auziaz hausnartu dute; amesgaizto bihurtu zen amets bati buruz idazten dute, indarrez itxitako proiektu bati buruz.

[kirola]

Bela sustatzea helburu

Getxoko Udalak eta Unai Basurko buru duen elkarteak **hitzarmena** sinatu dute



Informazio gehiago: www.getxo.net edo www.pakeabizkaia.com

Unai Basurko (Portugalete, 1973) nabigatzailea presidente duen Pakea Munduari Itzulia Getxo Bela Kirol Elkarteak eta Getxoko Udalak alkarlanean jarduteko hitzarmena sinatu barri dute. Udalak, 2010eko aurrekontutik, 6.000 euroko dirulaguntza emongo dio Elkarteari bela kirola udalerrian susta dezan.

Udaletik jakinarazi dutenez, urtetan belan jardun duten eta kirol jarduera hori bultzatu duten elkartei proiektu batean alkarregaz parte hartzea proposatu die, eta Getxoko alkate Imanol Landak adierazi duenez, “*Nor Unai baino hobeto Udalagaz, ikastetxe eta ikastolakaz eta bela zaletuakaz lan egiteko kirol hau sustatu eta zabaltze aldera. Bere eskarmentua eta ezagutza baliatu gura ditugu hori lortzeko*”.

Belako profesinal ezaguna buru duen Elkarteak Getxoko kirol portuan du egoitza eta bere helburu nagusia “bela kirola Euskadi osoan zabaltzea eta sustatzea da, batez ere, Bizkaian; arrazoi desberdinengatik kirol honetaz gozatzeko modurik edo aukerarik izan ez dutenei itsasoa eta bela hurbilduz. Besteak beste, astebeteko edo

gehiagoko bela urtenaldiak antolatzen dituzte, baita klase teorikoak eman ere.”

Elkarteak eta Udalak sinatu barri duten akordioaren ondorioz, Elkarteak hurrengo ekimenak garatzeko konpromisoa hartu du: Abrako uretan estropada antolatzea eta berbaldiak eskaintzen jarraitzea. Hitzaldiei dagokienez, nabigazio munduagaz zerikusia dutenek emongo lituzkete, egingarria bada hiruhilean behin; horrez

«Estropada Abran, berbaldiak eta belaontzia ezagutzeko bisitaldiak»

gainera, Basurkok berak solasaldi bi prestatzeko hitza emon du, horien bitartez *Velux*, *Vendée Globe* eta *Le Figaro* estropadetan izandako bizipenak kontatzeko. Gainera, ikastetxeek eta ikastolek Pakearen egoitzara bisitaldiak egiteko eta Open 60 Pakea Bizkaia belaontzia ezagutzeko aukera izango dute. Basurkok dioenez, “*belak giza baloreak, lana, elkartzasuna eta duen ingurunearenganako, itsasoa, errespetua ematen ditu. Hitzarmen honeguz hori guztia lortuko dugu*”. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIROL MODA



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



• MAPKA GAZTAK
• 30 OREKOTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETEKO GARANTIA
• 25 URTEZ ELBE ZERBITZUA
• BEREHA DOAN
Tf. 94 430 52 00 KASUMI 18 - ALGORTA

Xabier Alberdi > *Itsasoari so* liburuaren egilea

“Portu bakoitzak bere ekonomia zeukan eta talaiak horietara egokituta zeuden”

Euskal Herriko talaiak eta seinero-postuak bildu dituzte Xabier Alberdik eta Jesus Manuel Perezek *Itsasoari so* liburu-CDan. Talaia bakoitzaren informazioagaz batera, horien ezaugarriak zein funtzioak azaldu dituzte, besteak beste. Kultur ondarearen bilduma ederra osatu dute.

—Talaiei buruzko liburua osatu duzue, nolatan?

—Bere garaian, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailari lan bat egin genion, Bizkaiko eta Gipuzkoako talaien bilketa egiteko. Leku horietako asko ez ziren ezagutzen eta galzorian egon zitezkeen; beraz, ezagupen falta hori gainditzeko, katalogatu genituen. Ondoren, liburuxka ateratzeko aukera eskaini zigun Kultura sailak. CDa ere badakar, talaia gehienak biltzen ditu.

—Zergatik daukazu gaiagaz interesa?

—Historialaria naiz eta itsas-ekonomiagaz lotuta egon dira beti nire ikerketak. Lan egiten dudan enpresan indusketak egin ditugu itsas jarduerekin lotuta. Dokumentazioa eskuragarri neukan eta ikusi nuen talaia asko galzorian egon zitezkeela, inolako babesik ez zeukatelako. Bilketa lanaren beharra hortik sortu zen.

—Zer kontatu duzu?

—Liburu dibulгатiboa da, helburua da jendeak ezagut dezala gure kostaldeko herrietan azpiegitura horiek izan direla, talaiak. Beren ezaugarriak deskribatu ditugu, jatorriak arakatu, funtzioak deskribatu, historian zehar bizi duten garaipena azaldu eta gidatxo osatu dugu jendea talaiak bisitatzea hurbil dadin. Toki oso ederretan daude, paisaje oso aberatsak



Liburuaren egileak: Xabier Alberdi Lonbide eta Jesus M. Perez Centeno

dauzkate inguruan, ikuspegi izugarria daukate: bertatik ikusten diren kostalde eremuak ikusgarriak dira.

—Beraz, ez da kokapen mapa hutsa, ezta?

—Ez, mapa modukoa CDan biltzen da. Herriz herri talaiak ageri dira bertan. Baina liburuan gogoetak egin ditugu, beti ere adibideak aipatuz. Gainera, bi ibilbide ere proposatzen ditugu, bata

ruxka txikia gaiaren alde orokorrak azaltzeko, eta bestetik, CD batean batzen dute gaiaren kokapen zehatza. Hortaz, formatua aurretik emanda zetorren.

—Euskal Herri osokoak dira, itsasoa behatzeko talaiak.

—Bai, azpiegitura horiek zuzenean herri bakoitzeko portuakaz lotuta daude eta espezializatuta daude. Portu bakoitzak bazeukan bere ekonomia berezitua, gaur

“Talaia asko galzorian egon zitezkeen, ezagupenik gabe, inolako babesik ez zeukatelako”

Bizkaian eta bestea Gipuzkoan, talaia batzuk bisitatzeko.

—Beraz, gauza desberdinak daude liburuxkan eta CDan?

—Horixe, ez dira gauza bera. Argitalpen modu hori da Kultura sailak darabilena, aurreko beste argitalpen batzuetan erabili duena. Batetik, beti izan ohi dute libu-

(eguraldiaren aldaketa behatzea, arrain-sarden presentziaz ohartzea, porturatu behar zuten ontziak bistaratzea, aldame-neko portuak ikuskatzea eta kontrolatzea...); eta bestetik, berri horiek helaraztea portuko marinelei. Azkenean, portu bakoitza bere ekonomia politika egiten saiatzen zen, eta alboko portuetakoek politika hori ikus ez zezaten saiatu behar zuten.

—Talaian artean Uribe Kostako batzuk ere jaso dituzue liburuxkan, eta horien artean, badaude bi berezi, Algortako Portu Zaharrekoa bata eta Barrikako *Talaia* baserria bestea. Zerk egiten ditu desberdin?

—Bi kasu oso politak dira. Algortako Portu Zaharrekoa bertako arrantzaleen beharretara egokitutako talaia da, portuaren gainean bertan kokatua. Bere ikuspen eremua ez da oso zabala, Bilbo-

ko itsasadarrera mugatzen da. Baina bertako marinelen ekonomiaren beharrak asetzeko azpiegitura da. Barrikakoa ere oso interesgarria da. Baserri bat dago, *Talaia* izena dauka. Horrelako beste batzuk ere ikusi ditugu: baserriko bizilagunek betetzen zuten talaietatik behatzeko funtzioa. Barrika inguruko arrantzaleei

rako kasu bakarrenetakoa da Hego Euskal Herrian.

—Kultur ondare dira talaiak, baina askotan, ondarearen garrantziaz ez gara ohartzen eraikina deuseztu behar duten arte; beraz, horrelako lanak garrantzitsuak dira?

—Dudarik ez. Gure ondarea baloratuko

“Barrikak eta Gorlizek elkarlanerako hitzarmena egin zuten Plentziagaz; kasu bakarrenetarikoa da Hego Euskal Herrian”

laguntza eskainiko zieten baserrikoek. Baina gainera, oso interesgarria da Barrikako eta Gorlizko herritarrek hitzarmena sinatu zuten bere garaian Plentziakoakaz. Izan ere, Plentzia ibaiaren barruan dago, ez zeukan aukerarik itsas zabala ikusteko eta informazioa partekatzeko hitzarmena egin zuten. Elkarlane-

badugu, ezagutzea da aurreneko pausoa. Ezagutzen ez dugunik ezin maita dezakegu, ez maitatu, ez babestu. Ildo horretan agian ekarpen txoa izango da gure lana. Jendeak izan dezala gure itsas-ondare aberatsaren atal honen berri, balora dezala, eta aldarrika dezagun; gorde dezagun gure isats-ondarea. ○

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea & zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Gebxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

Jone Uria > San Nikolas plaza

“Ez zeukan askorik, baina ez zitzaigun ezer falta”



“Orain arte izan dena ez da berriro izango”

* Doinua: Habanera

Nor ez da bertan aspertu arratsaldetan barrena? Ondarretan pipak hartu plazan eseri hurrena. Harrigarria zen nola mantendu ohi zen ordena koadrila bakoitzak zuen bere txoko nabarmena; jaietako txosna ere bertakoa zen onena... Bertan behera bota eta nola ez sentitu pena; “Saniko”-k bazuen zerbait beste plazek ez dutena, herriko gazte guztiok erakartzen gintuena.

Orain jasangaitzak dira paisaia eta zarata, halaberrez bertatik egin dugu denok hanka. Hala nahi bazuten pozik janzten dutenek gorbata gazteoi egin digute putada nahiko galanta... Bagenuen estalpea jaustean lehen ur tanta, kirolarientzat aldiz nolako frontoi aparta, bertan ikasten genuen hori ez ote da marka, ez zeukan askorik, baina ez zitzaigun ezer falta.

Lau urtez jardungo omen dira lanean luzaro, eta luzatzen badira ez da izango arraro. Nora joan beti hara gindoazanak lehenago? (E)ta agian bueltatzea gero ez dugu jasango... Bukatzen dituztenean obrak hemengo (e)ta hango ez nuke hala nahi, baina honetaz seguru nago: nahiz (e)ta San Nikolas Plaza denek dioten esango, orain arte izan dena ez da berriro izango.

Ubide Elkartokia

Giro jatorrean egun pasa egiteko aukera



Ubide Elkartokiko lantaldea: Iñaki Docando, Mikel Urkia, Ekaitz Apraiz eta Xabier Iza

Giro jatorra, ingurune ederra eta sukaldaritza tradizionala gaurkotasunez jantzia. Hori da Ubidera (Bizkaia) hurbiltzen denak aurkituko duena. Ekaitz Apraiz eta Mikel Urkia gazte algortarrak asfaltotik ihesi joan eta Arabako mugan dagoen herrixkan, Ubide Elkartokia zabaldu zuten maiatzean: “*Giro osasuntsuan, naturagaz kontaktuan eta giro euskaldunean gure bizia egiteko gogo genuen*”. Urteetako esperientzia daukate ostalaritzan eta horrek asko lagundu die jatetxea martxan jartzeko orduan; hile bi eman dituzte lokala atontzen: “*Antzina-ko taberna hartu eta etxearen identitate mantendu gura izan dugu*”.

Ostalaritza negozioa baino zerbait gehiago da Ubide Elkartokia: “*Zerbitzu batzuk diru truke eskaintzeaz gain, nolabait bestelako ekintzaz jantzi gura izan*

dugu jatetxea”. Ekintza kulturalak bultzatuko dituzte batez ere, bertso-saioak, zine emanaldiak eta hitzaldiak, besteak beste. Ekainaren 5ean bertso saioa dute.

Taberna eta jatetxean, eskaintza gozoa dago aukeran. Eguneko menua, asteburuetako menu berezia eta koadrilentzako menu merkeagoak dituzte: “*Sukaldaritza tradizionaletik abiatuz, toke gaztea sartzen diogu plater bakoitzari*”. Lehengaiak goi-mailakoa dira; izan ere, inguruko ekoizleak harremanetan daude, produkturik onenak lortzeko. Zonaldean duten garrantziagatik, onddo eta perretxikoez leku berezia dute. Jatetxeko eskaintzaz gain, inguruak eskaintzen dituen hamaika aukera daude. Egun pasa egiteko aukera polita! ○

San Juan plaza 1, UBIDE
Tf. 945 450 339

ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakaioia
- arrain freskoa

antebarreretan bazkari eta afariak enkargatzen
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Euzkian, Gubela erailaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 484 41 25
AREETA

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiatzpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaitan!!

Alangobarrri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

GOZOLABEA
GALDARETXE

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Telletxe 13, ALGORTA Tf. 94 491 51 44
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 52 58

Toponimoa > San Nikolas plaza

San Nikolas (plaza):

Elizaren ondoan egiteak eman zion izena plaza honi, baina diktaduraren garaian izena aldatu zioten eta 16 de Julio izena eman. Demokrazia heldu eta gero, 1980an zenbait kale izenen aldaketa proposatu ziren eta hau zen horietako bat. EAJK San Nikolas enparantza proposatu zuen eta HBk Txiki Otaegi enparantza, diktaduran fusilatutako azken euskal presoak faxisten kontrako borrokaren, Franco beraren lurperatzearen sinboloa zirelakoan. Bozketa egin zuten eta San Nikolas plaza izena aukeratu zuten (19 botu alde, 5 kontra). 1876an Konstituzioa izena zuen plaza honek.

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Negurko Etorbidea 9
T. 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZUJRMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T. 490 01 87
48990 GETXO

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

Tf./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbo@basalbobaserria.com



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTEUA
Amiluz e.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozaki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"

Prensa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lintaneriak

Ordutegi Mendateia 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z.g.
Algorta

Tf. erretabak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Zurea lortu arte ez zara gelditzen. Burugogorra zara eta edozein gauza egiteko prest zaude helburuak lortzeko. Baina saia zaitetz inor ez mintzen, batzuetan oso zakarra izan zaitzake eta.</p>	<p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Umoretsu eta alai sentituko zara, eragin ezin hobea izango duzu inguratzen zaituzten pertsonengan eta aukera berriak sortuko dira zure harremanetan.</p>	<p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Aldaketa ugari nabarituko duzu zure bizitzan. Gauzak bukatzen direnean hobe da aurrera tinko jarraitzea, gauza txarrak ahaztu eta ikasitakoa aprobetxatu, etorkizunean baliatzeko.</p>
<p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Gauza lar egin gura duzu, buru-belarri sartu zara oso gogoko dituzun asmo askotan, baina ez utzi alde batera maite dituzun lagunak, eta ez ahaztu, zaindu zure osasuna.</p>	<p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Maitasun arloan dena duzu zure alde, lagunak baduzu, sasoi ezia eta zorionsua biziko duzue elkarregaz, eta ez baduzu, gogoko pertsona bilatu, laster agertuko da eta. Hori bai, argi ibili diru kontuakaz.</p>	<p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Baliteke laster bidaiatxoren bat egiteko aukera azaltzea; horrela bada, aprobetxa egizu, on egingo dizu eta. Baina, batez ere, saiatu unean unean gozatzen, eta lagunakaz dibertitzen.</p>
<p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Azken bolada honetan utzikeria hutsen jausi zara. Apaindu zaitetz eta atera kalera; bizi eta gozatu momentua, eta laster izango dituzu arrazoiak nahiko pozik egoteko.</p>	<p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Ez duzu zintzo jokatu zuzan konfidantza osoa duten pertsonakaz eta arrankurak gainerik ezin kendu zabilta. Inoiz ez da berandu okerrak zuzentzeko.</p>	<p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Osasuna eta dirua ez dituzu faltan, baina non ote da maitasuna? Izan pazientzia apur bat eta ez galdu itzaropena. Kontuan hartu benetan onak diren gauzak lantzea merezi duela.</p>
<p>META</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Zure egitasmoren bat bertan behera gera liteke eta kezkatuta ibiliko zara. Agian, aspirina bat baino gehiago beharko duzu egunotan. Maitasunean esperientzia barriak biziko dituzu.</p>	<p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Haize barriak eta lagungarriak zure alde. Lagun barriak egiteko aukera izango duzu. Lanari dagokionez, zure nagusien oniritzia izango duzu laster eta zure lan ona eskertuko dizute.</p>	<p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Ez zaitetz hainbeste larritu arazo txikiakaz eta kontuan izan benetan ardura duten gaiak, bestela logabeziak akabatuko zaitu. Astialdi ederra datorkizu kezakaz, beraz hobe zenuke lasai hartzea datozen asteak.</p>

Koskakideak behar ditugu irratia aurrera jarrai dezan!!

Izena..... Deiturak..... Herria.....
E-mail..... Telefonoa.....

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

**12€ urtean !!
€1 hilean !!**


koskairratia@koskairratia.com
k/ Amezti 6 4. pisua 2. dep.
Algorta (Bizkaia)
www.koskairratia.com

KOSKA
irratia 108 FM

Bidali zure datuak
posta elektronikoko edo
posta arrunt bidez



HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuma

1. Ezin pentsatuzko, ezin irudituzko. 2. Nafarroa eta Gipuzkoako ibaia, Oria ibaiaren adarra. Euskal sindikatuetakoa bat. 3. Ukuiluko goialdeko lastategi edo belartegi. Ez zuzen, bihurri. 4. Esateko biztanle. Izanikoak. 5. Irrikatuz, irrikan. Lehenengo bokala. 6. Mila, zenbaki erromatarren arabera. Erregea. 7. Onez..., fede onez, asmo onez. Akabo, amaitu da. 8. Tinki, tinko, finki. Aldapa, aldatz, malda. 9. Modua, tankera. Eleberria. 10. Toponimiak.

Goitik behera

1. Kiroletan, pilota edo baloia beste baten eskura ipini. Geldo, mantso. 2. Hitz egin, jardun. Ene, neure. 3. Nabariak, inolako azalpen edo frogarik gabe berez ikusten sumatzen edo ulertzen direnak. 4. Pitxerrak. Uraioaren ikur kimikoa. 5. Dozena erdi. Tirologo ibaia. Naizen hau. 6. Artse-nikoaren ikur kimikoa. Bizkaiko ibaia. Alaitasun. 7. Bigarren bokala. Konturatu gabe, sumatu gabe. 8. Ba..., bazuten haien berri. 9. Biloa. Saila, arloa. 10. Aulestiko auzoa. Garai batean hala esaten zieten haurrei.

Soluzioa

K	V	N	E	Z	I	U	K	E	L
V	L	E	B	O	N	V	E	R	A
R	V	I	V	P	K	N	I	T	
O	T	I	K	N	A	V	E	N	O
V	A	K	R	V	N	O	M	A	M
A	Z	K	V	K	A	R	I	R	
K	V	I	H	O	S	A	R	E	S
R	K	E	O	K	I	A	B	V	S
L	A	E	L	S	X	A	V	A	V
N	I	Z	A	E	S	T	S	A	P

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein da maiatzean Andra Mari elizan UK-k aurkeztu zuen dokumentalaren izena?

> Aurrekoaren erantzuna: Lamiako
> Irabazlea: **Izaro Munarriz***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA **Argia**

astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



Zein herritakoak dira "Lehen eta orain" ataleko argazkiak?

- **Lekeitio**
- **Armintza**
- **Arrigorriaga**

> Aurrekoaren erantzuna: Txakurra
> Irabazlea: **Amaur Lozano***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37



Aurtengo Nobedadeak:
Zoo Zorua eta Armix Kart

Demoak:
www.elhuyar.org/armixkart
www.elhuyar.org/zoozorua

Joko hau opari gura baduzu, Interneten erosi; %5eko deskontua www.elhuyar.org/edizioak helbidean



SARIA



*PATXIN L. DE LETONAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

EHIZTARIAK ETA ARRANTZALEAK FADURAN, 1966

BIDEBITARTE ELKARTEA (71/72an sortu zen Bidebitarte txokoa) urte askoan izan zen Faduran urteroko San Jose egunean egiten zen jaiaren antolatzailea. Goiko argazkia, ehiztariak eta arrantzaleak elkarren aurkako partidarena da. Hilabete honetan betetzen dira 50 urte elkarte sortu zela; 1960-05-05ean eratu zen Bengoetxea bodeguilla (gaurko Butron bodeguilla) " Ibai arrantza sustatzeko Bidebitarte kirol elkarte ". Hamabi bazkide sortzaileak hauek izan ziren: Valeriano Gonzalez (presidentea), Eusebio Perez (preidenteordea), Fernando Mendia (idazkari-diruzaina), Patxin L. de Letona (bokala), Joaquin Mendia (bokala), Belarmino Muniz, Luciano del Tio, Juan M^a Zunzunegui, Zenon Echevarria, Iñaki Mardaras, S. Echeiz eta A. Martinez. Datorren ekainean egongo dira ekitaldi batzuk 50. urteurrena ospatzeko eta omenalditxo egiteko bizirik dauden bazkide sortzaile biei: Iñaki Mardaras eta Patxin L. de Letona; eta bi hauek batera, nahiz eta sortzailea ez izan, ia-ia sorreratik beti lanean ibilitako Agustin Sarriari. Zorionak hiruroi eta txokoko bazkide guztiei! ○

Ezkerretik eskumara: Lezama (makurtuta, Athletic-eko atezain famatua), Luis Mendilibar (ehiztarien kapitaina), Sainz (arbitroa), Fernando Mendia (arrantzaleen kapitaina), Venancio (Athletic-eko aurrelari famatua).

[aitormenak]

MAITE ESPARZA > telebista aurkezlea

“Batzuetan irudimenerako joera daukat, baina oinak lurrean”

Testua: Zuberoa Iturburu Argazkia: EITB



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Alaia eta zintzoa.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Tim Burtonen *Alicia lurralde miragarrian*. Batzuetan irudimenerako eta fantasiarako joera daukat, desirak bilatzekoa; baina oinak lurrean.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Idatziko nuke, eta bidaiatu, ardura ekonomikorik ez banu eta eguneroko beharretatik libratuta. Eta noizbehinka, dokumentalen bat grabatu.

Txikitan zer izan gura zenuen?

Txakurren albatari, oso gustuko nituen eta ditut.

Badakazu ohitura txarren bat?

Batzuetan, aurrez epaitzea, egoeraren informazio nahikoa izan barik.

Beraz, aitor dezakezun bizio bat?

Ardo batzuk hartzea lagunekin.

Eguna ala gaua?

Lehen askoz ere gautiarragoa nintzen, baina urteek aurrera egin ahala, egunaren alde erakargarriaz ohartzen nabil.

Zerk ematen dizu beldurra?

Maite ditudanak desagertzea: senideak, lagunak...

Zein da zure ametsetako bat?

Indiara bueltatzea.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Behar ditudan pertsonak gabe, irri egin gabe, goizeko kaferik gabe...

Parrandarik politenak non?

Hobeto esanda, zeintzuk; planeatu gabeak, ustegabeak, bat-batekoak.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Nafarroan, Gamuza nire amaren herriaren eta Laukizko mendikatearen artean badago harroka bat eta bertatik bailara osoa ikusten da. ○

LABURREAN— ETB2 telebista kateko aurkezlea dugu Maite Esparza (Iruñea, 1972). *Vuelta de tuerca* edota *Pasalo* programetan ibili izan da, eta duela hiru hilabete, *Aspaldiko* saioa aurkezten du Antxon Urrusolo eta Arantza Sinobasegaz batera. Gustuko ofizioa dauka, baina beste afiziorik ere badauka. Iaz ipuin laburren liburua argitaratu zuen, idaztea oso gustuko du eta. Baina denbora eta energia behar dira; beraz, gura baino gutxiago idazten du. Antza denez, arrastiro kafea bere programa ikusten hartzen jarraitu ahalko dugu.

Berangoko X. Txakoli Eguna

2010 Ekainak 6

Lekua: Sabino Arana Kalea
12etatik aurrera

Berangoko
txakolin dastaketa
Txitxi burduntzi eta
txorizoa danontzat

Txakolingileak:

Donato Iturriaga (Sustatxa)

Aniceto Ugarte (Sustatxa)

Iñaki Cardas

Juan Uranga

Tomás Markaída

Andoni Urrutia

Saitua "Palaparru"

Lekanda "Landazabale"

Esteban Iratzagorria

Sagar - Etxe (Uriarte)

Olatxites

Aretxaga "Iturralde"

Felix Mardaras (Aitzgane Barri)

Iñaki Arrieta

Pedro Cadavid

Manolo Bustelo (Basotxu)

Mastigane

Ramón Fernández (Urruzkune)

Jesús Uribarri (Trabudu)

Ubautxu

Arteleku

José Antonio Ugarte (Mastiondon)

Antolatzaile:

Txakolingilen Laguntzaileak



Berangoko Udala



BFA DFB



bbk

Atzeko jesarlekua
estreinatu
aurretik...

Praktika! ezazu!

Hemen dituzu
gidabaimena euskaraz
ateratzen lagunduko dituzten
Uribe Kostako autoeskolak:

ERANDIO

- > GAZTEDI AUTOESKOLA
 - Trabudu kalea, 3 T. 94 467 39 33
- > ERANDIO AUTOESKOLA
 - Ibarra kalea, 10 T. 94 467 21 09
- > ALTZAGA AUTOESKOLA
 - San Jeronimo kalea, 16 T. 94 665 84 44
- > ARIAS AUTOESKOLA
 - Fundacion Jado kalea, 19 T. 94 467 10 35
- > ASTRABUDUA AUTOESKOLA
 - Consulado de Bilbao kalea, 9 T. 94 467 54 98

GETXO

- > ALGORTA AUTOESKOLA
 - Andres Cortina kalea, 6 T. 94 460 94 43
- > AMEZTI AUTOESKOLA
 - Amezti kalea, 9 T. 94 491 09 15
- > ARIAS AUTOESKOLA
 - Mesodeetako kalea, 28 T. 94 463 88 57
 - Bidezabal kalea, 14 T. 94 430 11 44
 - Gobelaurre kalea, 13 T. 94 463 00 19
- > GETXO AUTOESKOLA
 - Salsidu kalea, 20 T. 94 430 25 71
- > PRECIADO AUTOESKOLA
 - Maskaleta etor. 83 T. 651 961 901
- > SAN INAZIO AUTOESKOLA
 - Tolletxe kalea, 13 T. 94 460 00 45
- > URIBE KOSTA AUTOESKOLA
 - Urkiola kalea, 4 T. 94 430 06 05

URIBE KOSTA

- PLENTZIA
 - > URIBE KOSTA AUTOESKOLA
 - Portaleta kalea, 11 T. 94 677 02 06
- SOPELA
 - > KAIKU AUTOESKOLA
 - Sipiri kalea, 4 T. 94 676 70 71
 - > SOPELANA AUTOESKOLA
 - Sertutxa kalea, 6 T. 94 676 03 40
 - > URIBE KOSTA AUTOESKOLA
 - Laubide kalea, 2 T. 94 676 48 39
- URDULIZ
 - > KAIKU AUTOESKOLA
 - Gobela kalea, 3 T. 94 676 68 66

**Gidabaimena
euskaraz**

L

Azterketa teorikoa euskaraz egiten duten gazteei:

- **klase praktiko bat doan!**
- Europar zehar ibiltzeko interrail bidai baten zozketan parte hartzeko aukera



OHARRA: Bizkaiari, azterketa teorikoa nahiz azterketa praktikoa egin daitezke euskaraz. Bizkaiko Trafiko Zuzendaritzan 3 aztertzaila euskaldun dabilzta eta, eskatuz gero, azterketa praktikoa euskaraz egiteko aukera dago.